



**Erdizagako harrobia
eztabaidan Baztanen** 04

Erdiz Bizirik Plataformak bi batzar jendetsu egin ditu urtarril hasieran. Bitartean, harrobiak ingurumenean eraginaren lukeen kaltean azterketa agindu du udalak.



**Zozaia eta Iargarai
Nafarroako txapeldun** 25

Pala motzeko Nafarroako Txapelketa Lesakako Xabier Zozaiak eta Erratzuko Xabier Iargaraiak osatutako bikoteak irabazi du, Lareta eta Erbururen kontra.

2007ko urtarrilaren 18a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



03 NAFARROAKO SAGARDOTEGIAK 2007

Lekarozko Larraldean irekiko da larunbatean txotx denboraldia



ORDOKI

a l t z a r i a k

Larunbat goiz eta
arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80
LESAKA



ARIN

Allianz 

Aseguruak - Seguros:

Parrokia, 21 DONEZTEBE Tel: 948 450 266 Faxa: 948 450 617

**LAISTER BULEGOA IREKIKO DUGU BERAN
EZTEGARA PASEALEKUA 26AN**

DATUAK...

- Larunbat honetan, urtarrilaren 20an, Nafarroako sagardotegiaren txotx denboraldia zabalduko da Lekarozko Larraldean.
- Gaur egun, sagardoa ekoizten duten sei sagardotegi daude elkarteak: Larraldea, Lesakako Lindurrenbordea, Berueteko bi, Aldatz eta Lekunberrikoa.
- Nafarroa osoko sagardotegietan 200.000 litro sagardo eginen dituzte; Larraldean 32.000 eta 35.000 litro artean.



Jesus Angel GARCIA *Lekarozko Larraldea sagardotegikoa*

ARGAZKIA: ONDIKOL

«Sagardoaren %90a bertako sagar ekologikoarekin egin dugu aurten»

Aitor AROTZENA

Nola joan da aurtengo sagar uzta?
Nahiko ongi. Sagar goiztiar dexente izan dugu baita beranduko zerbait ere. Denboraldi erdiko sagarrak ez dugu izan, baina nahiko uzta ona izan da. **Zer moduko sagardoa espero duzue aurten?**

Sagardo batzuk eginak daude dagoeneko eta bertze batzuei denbora dexente falta zaie oraindik. Kolore aldetik gorrixtagoa izanen da aurtengo sagardoa, baina ez da seguru erraterik. Eskualdeko sagarrak tanino gehiago izaten du eta horrek kolore berezia ematen dio.

Zer sagar klase erabiltzen duzue sagardoa egiteko?

Batez ere sagar gazia erabiltzen dugu, baita geza, motela eta goxoa ere. Eskualdean, sagar mota aunitz eta onak daude. Gehien erabiltzen ditugunak urtesagarra, udaresagarra... Baztanen anixesagarra ere aunitz erabiltzen dugu, kolore iluna ematen duena. Aurten sagardoaren %90a bertako sagarrarekin egin dugu, gure kasuan Lekaroz eta Aritzakungo sagarra. Hori osatzeko ekarri dugun sa-

«Azkenean, zuhaitzak xurgatzen duen guzia sagarrera doa eta sagarra trinkotuta ateratzen da sagardoa»

garra, Galizia eta Bretainiatik ekarri dugu. Aurten Asturiasek ez zen sagarrarik.

Gainera sagardo ekologikoa egiten duzue. Zein bereizgarri ditu?

Sagardo ekologikoa sagar ekologikoarekin egindakoa da. Sagar ekologikoa ekoizteko ez da produktu fitosanitariorik erabili behar, ezta sintesi-produkturik, herbizida edo plagizida industrialik ere. Azkenean, zuhaitzak xurgatzen duen guzia sagarrera doa eta sagarra trinkotuta ateratzen da sagardoa.

Honelako produktuak erabili gabe, sagarrondoak errazago eritzen al dira?

Arazoren bat badugu lore-gurgurioarekin (*gorgojo de flor*, gaztelaniaz). Jendeak pentsatzen du lorea hormatu egin zaiela, baina nahasita daude, lorea berantiarra denez hemen hormateak kasik inoiz ez baitigu eragi-

ten. Baina intsektu honen ziztadak lorea hormatua dagoenaren itxura ematen du eta lorea erortzen da. Sei urte kosta zitzaigun intsektu hori bazogela jakiten. Ekoizpen ekologikoan zaila da eritasun hau tratatzea, feromonak begiratu ditugu, baina eritasun honetarako ez daude.

Hamalau urte dituzue Lekarozen. Baztanen berrikuntza handia izan zen garai hartan sagardotegia irekitzea. Aunitz aldatu dira kontuak?
Sagardoa lehen baino anitez gehiago edaten da orai. Orai arraroa da sagardotegira etorri eta ardoa eskatzen duena, baina hasieran aunitz eskatzen zen. Hasieran ez genuen ardorik eta zalantza horixe dugu, ardoa izanez gero, sagardoa baino gehiago eskatuko ote ziguten. Orain badugu Aibarko ardo ekologikoa, baina gutti eskatzen da, normalean sagardoa eskatzen dute bezeroek. Nafarroa osoan aldatu da sagardoaren kultura. Duela 13 urte Erdi Aroko Azoketara joaten hasi nintzen eta Tuteran ez zen sagardorik ostatu bakar batean ere. Gaur egun guzietan badute, ez guzira, baina sagardoa badute.



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Virginia Aleman alkateak, Lizasoain, Aldako eta Goñi zinegotziekin batera eskaini zuen prentsaurrekoa.

ERDIZ BIZIRIK PLATAFORMA PROIEKTUAREN KONTRA DAGO

Magnaren harrobiak Erdizen eragin ditzakeen kalteei buruzko azterketa eskatu du Baztango Udalak

Magna enpresak Erdizaga inguruan ustiatu nahi duen harrobiak ingurumenean eraginen lukeen kalteei buruzko azterketa egitea eskatu dio Baztan Balleko Udalak Ingean enpresari. Modu berean, proiektu honen etorkizunari buruzko azken solasa Baztango Junta Generalarena izanen dela aipatu zuen Virginia Aleman alkateak urtarrilaren 8an eskaini zuen prentsaurrekoan. Erdiz Bizirik plataforma, bere aldetik, proiektuaren aurka azaldu da «babestutako eremu batean eta Balleko herrilur handienetako batean ingurumenean izanen duen eraginarengatik». Modu berean, abeltzaintzan eraginen lukeen kaltea ere azpimarratu nahi izan du Plataformak, ilbeltzaren 2an eta 10ean egin dituen batzarre jendetsuetan.

Aitor AROTZENA

Virginia Aleman alkateak, EAko bertze zinegotzi batzuekin agerraldia egin zuen urtarrilaren 8an, jendaurrean kezka horiek uxatzeko asmoz. Bere erranetan, gan den urtean Magnak Eugin duen harrobiko arduradunek eta langileek jo zuten Baztango Udaleko agintariengana, eta Azkarateko minerala agortzen ari delako, Artesiagako Erdizaga eremuko lurretan harrobia egiteko proiektua beharrezkotzat jo zuten.

Eskaera horren harira, proiektuak izan ditzakeen aldeko eta kontrako elementuak «sakon eta objektiboki» aztertzea erabaki zuen Baztango Uda-

lak, eta erabaki horren ondorio da egun Ingean enpresa harrobiak ingurumenean eraginen lituzkeen kalteei buruz egiten ari den txostena. «Horren zain gaude, oraindik ez baitute akitu».

Alemanek argi erran du, hala ere, proiektuari baiezkoa edo ezezkoa emateko azken erabakia Junta Generalaren esku utziko duela Udalak, «herriarrek ustiatzeko lurrak baitira proiektuak ukitzen dituenak, komunalak».

Alde horretatik, afera honek Aldudera egin nahi zen bidearekin antzekotasunik badu. Orduan ere eztabaida piztu zen, Udalaren eta Belaunaldia bizirik plataformaren artean. Bide hura egiteko dirulaguntza handia eskaini zuten Europatik, Udala ere aukera onenaren bila lanean hasia zen, baina azkenean, Junta Generalak ezezkoa eman zion proiektuari.

Baina Virginia Alemanek ez du baztertu Nafarroako Gobernuak auzian esku hartzeko aukera. «Gerta daiteke Gobernuak harrobia udalez gaindiko proiektutzat jotzea, eta, ondorioz, zuzenean izanen luke baimentzeko eskumena». Halako erabakirik hartzeko urratsik ez du egin Gobernuak, oraingoz eta UPNko Begoña Sanzberroren erranetan, «ez du hori egiteko inolako asmorik oraingoz». Ondorioz, ohiko prozedura jarraitzen ari da proiektua. «Ingurumenean eraginen lukeen kalteei buruzko txostena prestatzen ari da enpresa, Nafarroako Gobernuko Ingurumen Sailean aurkezteko. Sail horrek oniritzia ematen badiu, Baztango Udalarik dagokio gero lanak egiteko baimena ematea», azpimarratu du Alemanek. Une hori oraindik ez dela ailegatu berretsi du Baztango alkateak.

ERDIZ BIZIRIK ETA BAZTANGO ARALAR KONTRA

«Harrobiak txikizioa eraginen luke inguruan»

Proiektua aspaldikoa da, 2001eko martxoan eskatu baitzuen Magnesitas Navarras enpresak Erdizaga eta Oiategi inguruan zundaketako egiteko baimena. Eugiko meategiak gehiezin hamar urteko bizia izanen zuela aipatzen zuen orduan enpresak eta Balleko Udalak zundaketak egiteari baiezkoa eman zion 2001eko abuztuan. 2002ko maiatzean zundaketa gehiago egiteko baimena eskatu zuen Magnak, baina Junta Generalak baimena ukatu egin zion. Garai hartan sortu zen Erdiz Bizirik plataforma eta orduan bezala, orai ere proiektuaren aurka azaldu da. Zundatze lanen aurka agertu arren, azken urteotan Baztango Udalaren eta Magnaren arteko harremana ez dela eten azpimarratu dute Erdiz Bizirik plataforman bat egin duten baztandarrek.

Plataformak argi du harrobiak txikizioa eraginen lukeela inguruan. Ildo horretan, taldeko kideek salatu dute Gobernuaren jarrera. Eremu horretan dagoen Europarentzat Interesa duen Tokitik (LIC) kanpo, eta beraz, babestutako eremuaren mugatik kanpo utzi duelako, hain justu, harrobiak be-

teko lukeen ingurua, Erdiz Bizirik Plataformako kideek aipatu dutenez.

Plataformak Magna enpresaren jarrera ere salatu du. Baztango hainbat kirol talde diruz laguntzen hasi da enpresa, eta bertako hedabideetan iragarkiak jartzen. Harrobiaren kontrako proiektua gauzatu ahal izateko interesarekin lotu dute Magnaren jokatibidea. Erdiz Bizirik plataformaren ustez, «batzarretarat hainbertze jende agertzeak, proiektuaren inguruan alimaleko kezka dagoela erakusten du, eta beharrezkoa dela ixilik dagoen gehiengo sozial hori piztu eta mugiaraztea. Aldi berean, egin daitezkeen gauza desberdinei buruz, herri galdeketa baten aukeraz solastu zen batzarrean, horretarako, Leitzarrek egindakoa baliagarri izan daitekeela aipatu zen, eta hari horretatik ere, lan egiten ahal dela. Nekazariak ere, biziki larrituak agertu ziren proiektuarekin, Baztango bazkatoki komunalik handiena xehatuko lukeelakotz».

BAZTANGO ARALAR ERE KONTRA

Erdiz Bizirik plataformaren iritzia erekin bat egin du Baztango Aralarrek, eta proiektuaren aurka agertu da, prentsa ohar baten bidez. Harrobiak hamabortz urterako 30 lanpostu sortuko lituzkeela aipatu du Aralarrek, eta «hori ez da nahikoa proiektuak dituen alde txarrak bazter uzteko». Alde txarren artean aipatu du Baztango Aralarrek ingurua Europarentzat Interesa duen Tokia dela, eta, harrobia eginez gero, 24 milioi metro kubiko lur mugituko lirakeela eremu horretan.

Modu berean, harrobiak aldaketak eraginen lituzke Artesiaga eta Eugi Kintoen barrena lotzen dituen errepidean. Trafikoak, gainera, goiti egingen luke. Aralarrek aipatzen duenez, orduro 25 tonako hameka kamioi ibiliko lirake inguruan.

Hori guztia kontuan hartuta, proiektuari ezezkoa erratea erabaki du Aralarrek. Proiektuari buruzko informazioa herritarrengana heltzeko eskatu du, gaiak eztabaida handia piztu duelako Baztanen.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Ilbeltzaren 2an eta 10ean Erdiz Bizirik Plataformak deitutako batzarretara hainbat baztandar agertu dira, gaiak interesa eta kezka sortu duela nabarmenduz.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.net

info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apeztexea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Peio Zestau, Arkaitz Mingegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia eta Sandrine, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odrizola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 e
Espainia	32 e
Sara (edantegia-okindegia)	40 e
Ipar Euskal Herria	52 e
Europa	52 e
Amerika	110 e
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	26 e



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Hainbertze gauza adierazi nahi eta nola hasi...

Lehendabiziko eskerrak Azpeitiko Aitorri, Unairen esperoan lehendabizi, erreskate zerbitzuen zain ondoren eta etxekoak ailegatu arte eman zidan laguntza atseginagatik.

Eguna argitzeko dextente falta zela Beratik iritsi zen laukotearen azkartasuna eta profesionaltasuna, txapela kentzeko modukoa.

Eguna argitzear zela Anayetera abiatzeko dagoen aparkaleku hartara kotxe eta furgoneta ilara amaigabea hasi zen iristen, Unairen bila abiatzeko prest. Agian ez zaituztegu banaka-banaka gogoratu, baina hango jendetzaren irudia oroimean ongi gordea edukiko dugu beti. Berri txarra azkarregi ailegatu zen, ordea.

Hortik aitzinerako une gogorretan izandako maitasun eta elkartasun adierazpenak amaigabeak ari dira izaten: ospitale atariko egonaldi luzeko lagunak, azken agurrera hurbildutako jendetza, besarkada, animo, mezu, mu-

xu, lore, bertso, esku-titz, doinu eta joare soinu...

Azkenik, ez dugu erran gabe utzi nahi Unai ez zuela Guardia Zibila aurkitu. Oraingoan ere bertsio ofiziala ez dator bat gertatutakoarekin. Bilaketa lanak uztearen arrazoiak sinisgarriak ez izateaz gain

(ilargi beteko gau izart-sua baitzen) beraiek aurkitu zutela zabaldu zen komunikabide gehiengotik.

Bilaketa lanak utzi zizutela abisua eman eta gutxira gauerdian mendira ateraziren lagunak. Gau guztia mendian eman ondoren, aurkitu zuten, argitzeko aunitz

falta ez zelarik. Unai ezin izanen dugu hain errex ahanzi, ez eta zuek egindakoa ere. Mila esker Igor eta Xabier.

Mila esker denei.

Estitxu.

Xuaxko eta Harizpeko familiaren izenean.

harpidetzak 07 tarifa berriak

ESPAINIA	32 €
EUROPA	52 €
AMERIKA	110 €
Baztan, Bertizarana, Urdazubi, Malerreka, Leitza	
Sara, Senpere, Azkain La Poste	26 €
Sara Edantegian eta okinekin	52 €
Bortziriak, Areso, Goizueta eta Arano	40 €
	DOAN

www.ttipi.net

Tfnoa: 948 635 458 • Faxa: 948 635 457
info@ttipi.net • publi@ttipi.net

BORTZIRI

UNSION ANAIAK

sukalderako altzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 •

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

Igantzikoko Bentak & 948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaia.
- Mantenu rodilloak.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



BERRIA, 2007-01-11

«Argi dago su-etena ETAk hautsi duela Barajasko atentatuarekin, baina egia da Gobernuak ez dituela inolaz ere etxeko lanak egin. Bederatzi hilabeteetan ez da distentsio keinurik txikiena ere ikusi, ez presoen sakabanetari dagokionez, ez 18/98 bezalako auzietan, eta Alderdiaren Legea aldatzeko aukerarik ez da izan inongo momentutan. Gainera, harrokeria handiz adierazi zuten ez zutela ezer egin».

Jon ABRIL
Bera. Aralarreko koordinatzaileordea.
Berria 2007-01-11

«Doneztebeko pilota eskolan hamalau urterekin hasi nintzen, Iñaki Lizasorekin. Hasi nintzenean berak esan zidan lanean jarraitzen banuen erremontista irtengo nintzela, eta hala jarraitu nuen Euskaleko eskolara pasatu arte. Han bi urte pasatu eta 17 urterekin egin nuen debuta». «Gaztetxoek futbola eta esku-huska nahiago izaten dituzte. Haur asko dago esku-huskan hasi eta jarraitzerik ez duena... (...) nik horiei esango nieke erremontea probatzeko».

Julen SAN MIGUEL
Doneztebeko erremontelaria
Berria 2007-01-11

• 11 GALDERA LABUR •

Noiz sartu zitzaizun motorako afizioa?
Hamar-hameka urte nituenean.

Noiz hasi zinen zu ibiltzen?
Hamahiru-hamalau urterekin.

Nola sartu zitzaizun afizio hori?
Garai hartan Urdazubín motokrossa izaten zen eta auzoko bat ongi ibiltzen zen...

Leihaketan noiz hasi zinen?
Hemezortzi urterekin.

Bertze kiroliek gustoko duzu?
Bai, igeriketa, korrika egitea, bizikletan ibiltzea... eta orain sokatiran hasi naiz.

Zenbatgarren SHARK XTREME duzu aurtengoa?
Hirugarrena.

Nola parte hartu zenuen lehen aldiz?
Baionako tailer baten bidez, er-

di engainatuta joan ginen.
Zer moduz joan zen?

Oso gogorra izan zen baina iaz ere errepikatu genuen.

Aurtengorako nola prestatu zara?
Astean behin korrika egiten nuen, beste behin bizikletan, bitan igerian eta ahal zenean motoan ibiltzen nintzen.

Errepikatzeko prest?
Ez dakit datorren urtean egingo den, baina egiten bada, seguru.



Noel EYHERAGARAY
Urdazubiko kirolari gaztea

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

Haur jaioberrientzako osteopatia tratamenduak

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

HEP, BIKI
ETREMO
EDXNTEGIZ
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519
Maixan eta Véronique
SARA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittirio, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxo: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxo: 948 133 713

KOMUNIKABIDEAK

Nafarroa osoko hamahiru aldizkari NafarPres elkartean bildu dira

Ttipi-Ttapa hamabostekaria ere Nafarroako Tokiko Prentsaren elkarteko kide da

Aitor AROTZENA

Abenduaren 20an aurkeztu zen jendarean Iruñeko Baluartean NafarPres, Nafarroako Tokiko Prentsaren Elkartea. Elkartean Nafarroa osoko hamahiru aldizkari bildu dira, batzuk euskara hutsean argitaratzen direnak, bertzeak elebitan eta baita gazteleraz bakarrik idazten direnak ere. Maiztasunari dagokionez ere, badira hilabetekariak, hamabostekariak eta astekariak ere.

Ttipi-Ttapa hamabostekariarekin batera, Pirinio aldeko Mendixut hilabetekaria, Araitz-Leunberriko Mailope hilabetekaria, Tafalla aldean banatzen den Merindad hamabostekaria, Aldizkari S.L.k argitaratzen dituen hainbat hilabetekari (Iruñeko Alde Zaharreko Aldapa, Burlatako Ibaialde, Txantreako Auzolan, Donibane Donibane eta Antsoango Ostoki), Erriberako Plaza Nueva, Sakanako Guaxe,



ARGAZKIA: JOSU SANTESTEBAN

NafarPres osatzen duten komunikabideen prentsaurrekoa eskaini zuten Baluarteko aurkezpen ekitaldi ofiziala baino lehen.

Izarbe Ibarako Entreto2 hilabetekaria eta Lizarra aldeko Auzolan dira NafarPres elkarteko kideak. Aldizkari hauetan 50 profesional baino gehiago ari dira lanean eta 50.000 ale baino gehiago argitaratzen dituzte. CIESe egin dako azken azterketaren arabera, 250.000 la-

gun baino gehiagora iragazten dira.

ELKARTZEKO ARRAZOIAK

Ttipi-Ttapa hamabostekaria, eta gainera aldizkariak, elkarte batean biltzera bultzatu dituen arrazoiak hainbat dira. Tokiko informazioa hedatzea da

horietako bat, hau da, informazioa irakurleari hurbilen egiten zaion ikuspuntutik ematea. Horrekin batera, NafarPres osatzen duten komunikabideek tokikogarapena laguntzen dute ekonomia, merkataritza, kultura, usadioak eta tokiko garapena laguntzen dute ekonomia,

merkataritza, kultura, usadioak eta tokian tokiko gizarte-bizitza sustatuz. Eta honi lotuak daude 13 aldizkariak kultur-globalizazioaren aitzinean eskualde bakoitzeko berezitasunak mantentzen laguntzeko egiten duten ahalegina.

Baina komunikabide diren neurrian Nafarroako tokiko prentsaren sektorea osatu eta administrazio publikoaren aitzinean hedabideekin zerikusia duten gai guztietan erreferentziatzko interlokutore bihurtu nahi du NafarPresek. Sektorea modernizatzeaz batera arlo ezberdinetan komunikabideen arteko elkarlana bultzatuko du. Erraterako, produkzio kostuak, baliabide profesional eta teknikoaren erabilera edo elkarrengandik ikastea. NafarPres osatzen duten komunikabideek, gainera, garbi dute herrialdea eta nazio mailako hedabideak iristen ez diren informazio guztea betetzen dutela.

caroha
guztegi onlinea

17 de artzategia 25 bajo 948 63 08 99
94100 borja@caroha.net www.caroha.net

bortzirudi
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK · KANSETAK · BIZERAK · TOSKERDIK (Nahi duzun neurri - dituzurekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK · BULBOITAK · TISURI BELTZEAK · PLANDAK
ENKLADERNAZIOAK · PLASTIFIKAZIOAK · PEPEPTEIA · BULEGO MATERIALA
DISEÑO GRAFICO · LOGOTIPOAK · ERROTULUAK · IMPRENTA

Ezitearra, 26. Etxeakoa Behoa D - BERA - Tel/Fax: 948 631 571

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

WATER-BIKE

Kanttonberri, 1 • BERA
948 63 12 18

BAR
Botxo
OSTATUA

JAZONE - GOZOTEGIA

Aitzate, 19 • 948630786 • BERA

BERA

Bera eta Lesakako udalek Kanoa zentroa irekitzeko hitzarmena sinatuko dute

Bertzalde, Larun Haitzpe elkarteak informatika ikastaroak antolatu ditu

Amaia eta Ainhoa

Udalak egindako azken batzarrean, Alkaiagan Kanoa zentro bat irekitzeko Lesakako Udalarekin hitzarmena sinatzea onartu du. Manuel Iriarte zinegotziak eman du honen aurkako botu bakarra, bere ustez zentro hori Beran egiteko eman beharreko pausuak ez direlako eman. Batzarrean, beraz, bi herrien artean hitzarmena adostea eta formaltzea erabaki da. Gainera, Berako Udalak 2007ko azarorako Kanoa zentroa bukatzeko konpromisoa adierazi du.

Merkatarien ikastaroak

Larun Haitzpe Elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu dagoeneko eta ildo horretik segitzen dute. Urtarrilaren 15ean, adibidez, Nafarroako Merkataritza Elkartearekin batera antolatutako informatika ikastaroa hasi da. Aste honetan, asteleheneetik ortziralera 15:00etik 17:00era ematen ari dira. Ikastaro honetan Word, Internet, Excel eta posta elektronikoen oinarriko ezagutzak lantzen ari dira. Bertze ikastaro bat ere laster



ARGAZKIA: TELLETXEA

Baietz eta Beti Gazteko beratarrak garaile Toki-Ona kiroledegiko areto-futboleko Gabon Kopan
Abenduaren 29 eta 30, jokatu ziren Toki Ona Udal Kiroledegiak antolatutako Areto Futboleko Gabon Kopako finalak. Baietz taldea gizonezkoetan, eta Beti Gazteko beratarrak emakumeetan gailendu ziren aurtengoan.

jarriko da martxan, eskaparatismoaren ingurukoa. Informazio gehiago bilatzeko edo izena emateko Nafarroako Merkataritza Elkartera deitu behar da (948239908 edo 607303400). Gogoratu ikastaro hauetan parte hartzeko ez dela nahitaezkoa elkarteko kide izatea.

N-121-Ako bide-seinaleak ez dira egokiak EAren ustez

Eusko Alkatasunak, egindako prentsa ohar baten bitartez, duela gutti Bera eta Enderlatsaren artean, N-121-A errepidean, Lapurdiko eta Frantziako norabideak eta distantziak zehazteko jarri dituzten bide-seinaleak, arrazoi ezberdinengatik desegokiak direla jakinarazi du. Alde batetik, alderdiaren ustez, arriskutsuak diren tokietan kokatu dituzte bide-seinaleak. Bertzetik, EAren irakurketaren arabera, Nafarroako Gobernuak

Frantziara doan trafikoa A-15 autobidera desbideratzeko egin duen apustuaren aurka doaz, hain zuzen ere Ezkabako tunelean diren bide-seinaleen aurka. Honetaz gain, hizkuntzari dagokionez, gaztelera hutsean jarri dituzte bide-seinaleak eta Euskararen Legeak dionez, euskaldun eremuan bi hizkuntzetan egon behar lukete. Egoera horren aitzinean EAK bide-seinale horiek kent-

zea eskatu du trafikoa A15 autobidera desbideratzearen politikaren aurka doalako. Bestela, bide-seinaleak uztekoan, bederen bi hizkuntzetan jarri legea betetzea eskatzen du.

Udal zerbitzuak hobetzeko dirulaguntzak

Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazio sailaren bitartez, zerbitzu publikoen sustapenerako eta kalitatea eta berrikuntzaren garapenerako eman dizkie udal erakundeei. Herrien antolakuntza eta kalitatea hobetzeko proiektuak dira. Zehazki, dirulaguntza hauek kalitatea eta antolakuntzari eta informazio eta komunikazioaren teknologiarri zuzenduta daude.

Berako kasuan, teknologia eta informazio arloan lau proiektuentzako dirulaguntzak jasoko dira: kudeaketa softwarea RCT delakora egokitzeko, 3000 euro; errezibo ordainketak web bidez erreferentziaz egiteko 928 euro; RCT delakoarekin datuak sinkronizatzekeo 3000 euro; eta Kultur Etxea eta 012 infolocalen jardueren arteko kone-

ANSONEA
Ostatua - Jatetxea
Eguneroko menua eta
asteburutar menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

LESACA

San Anton eguneko erromeriak hainbat bisitari erakarriko ditu

Igandean eginen da ospakizuna Endara auzoko basilizaren inguruan

Aitor AROTZENA

Asteazkenean, urtarilaren 17an ospatu zen berez, San Anton eguna. Aste eguna izaki, Endara auzoko basilizak bisitari batzuk hartu zituen, baina jende oldea igandean espero da. Ohiturari uertsiz, erromeria eginen da auzoan eta Lesakatik ez ezik, Bortzirietatik eta Oiartzun eta Irun aldetik hainbat lagun espero dira. Beti Gazte elkarteak mendi irteera antolatu du, goizeko 8:00etan plazatik abiatuta eta arratsaldean, 18:30etik aitzinera, dantzaldia izanen da Plaza Zaharrean.



ARGAZKIA: GOIKO

Igande goizean, 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan meza izanen da San Antongo ermitan. Hainbat bisitari etorriko dira Endara auzora, aspaldiko ohi-turari uertsiz.



HERIOTZA

Unai ETXEPARE

Pirinioetako Anayet mendian hil zen kirolari ezaguna

Aragoiko Canfranc herrian dagoen Anayet mendia (2.545 metro) igotzen saiatzen ari zela hil zen Unai Etxepare Elizegi, 29 urteko gazte ezaguna ilbeltzaren 5ean. Unai egun horretan desagertu eta Lesakatik eta inguruko herrietatik hainbat lagun hurbildu ziren Hueska aldera, mendizalea bizirik topatu asmoz. Komunikabide gehienetan Unaien gorpua Guardia Zibilak aurkitu zuela zabaldu bada ere, bere bi lagun mendizalek topatu zuten ilbeltzaren 6ko goizaldean. Itxura batean, hormarekin irristu eta amildu zen Unai. Unai Etxepare aski ezaguna zen herrian. Gizarte eta kultur arloko hainbat taldetan lan egiten zuen. Kirolzale amorratua izanik, Beti Gazteko futbolari dotorea izan zen hainbat urtez eta futbola utzita, laisterka eta mendian ibiltzea zituen zaletasun handienak.



ARGAZKIA: TELLETXEA

Komertzianteen 1.000 euroko txekoa M^a Isabel Perotxenarentzat Eguberrietako erosketekin batera herriko komertziantek txartel batzuk banatu zituzten beraien bezeroen artean, 1.000, 300 eta 200 euroko txekoeak zozketatzeko. Mila euroko lehenbiziko saria, Maria Isabel Perotxenak eskuratu zuen eta 200 eurokoa Fermín Indakoetxeak. 300 eurokoa 451 zembakiari egoitu zaio, baina oraindik ez da saridunik azaldu.

TALLERES BERRIZAUN
GASQUINERA LESACA
IMANOL TELLETXEA ZUZAYA
Tfnoa.: 948 63 74 60 • 31770 Lesaca

Toailak-Manteleriak-Oheko maindreak
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzen ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blue
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzen ditugu

Eleri Plz. Berría 4ra eta ikurá bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 481

GOZZ-ALDE
ZABARRITZINDIA
GASQUINERA LESACA

ETXALAR

Langile berria ari da Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatean

Berako Txomin Elgorriaga hiri hondakinen kudeaketaz arduratuko da

Joseba eta Nerea

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak langile bat hartu berri du hondakin solidoak kudeatzeko zerbitzuetaz arduratzeko. Berako Txomin Elgorriaga Astondoa da oposizio-lehiaketaren bidez hartu duten langilea. Lanpostua aldi baterako eta lanaldi erdikoa izanen da. Langile honen betebeharrak anitzak izanen dira. Alde batetik, mankomunitateak kontrataturiko zerbitzuen kontrola eta jarrapena egin beharko du: bilketak, garbiketak... Zaborrontzien kokapen egokiaz zein zaborrontzien egoeraz arduratuko da. Bertzetik, ordenantzak ez betetzeari buruzko ikuskapen lanak egin eta sakaketak jartzeaz arduratuko da. Herritarrok zaborlekuetan gaizki dauden gauzak salatu ahal izanen ditugu. Bereganajo beharko dugu kexarekin. Horretarako 670522975 telefono



UTZITAKO ARGAZKIA

Txomin Elgorriaga beratarra da Hiri Hondakinen mankimunitateko langile berria.

nora deitu dezakegu eta salaketaren berri eman.

Larraburuko mus eta partxisa

Ohitura den bezala, urte berriari musean eta partxisean eman diete hasiera Larraburua Jubilatuta Elkartearen. Urteko lehenbiziko egunean

aurtengo Mus eta Partxis Txapelketako finalak jokatu zituzten. Bi hilabetez, igandetan, jokatuko dute eta Urte Berri Egunean erabaki ziren irabazleen izenak, goizean musekoak, eta arratsaldean partxisekoak. Musean, Santiago Olasagasti eta Da-

niel Iparragirrek eraman zuten txapela. Azpitxapeldun, Pedro Telletxea eta Jabier Indaburu gelditu ziren. Hirugarren lekua Leontxio Arburua eta Jesus Ansalasentzat izan zen eta laugarrena Juan Maia eta Santiago Mikelestorenarentzat.

Partxisean berriz, Milagros Santesteban eta Maritxu Zubieta suertatu ziren irabazleak. Bigarren lekuan Anuntxi Agesta eta Mertxe Santesteban gelditu ziren eta hirugarren postua Enkarna Iparragirre eta Mari Cruz Anduezenarentzat izan zen.

Urteroko ohiturari segituz, irabazleei txapelak eta trofeoak eman zizkieten Errege Egunean Larraburuan. Goizeko mezaren ondotik egin zen ekitaldia eta irabazle guztiak egon ziren. Hurrengo igandean, urtarrilak 14, bazkari ederraren bueltan bildu ziren partehartzaileak eta hainbat gonbidatu, 40 bat lagun guztira.



PERTSONAIA

Iñaki PIKABEA

Hameka urtez Etxalarren sukaldari

Astearte honetan, urtarrilak 16, akabatu dute Larraburuan sukaldaritza ikastaroa. 14 lagunek parte hartu dute urritik orain arte iraun duten jardunaldietan. Mertxe Santestebanek erran digunez "hagitz gustura gelditu gara ikastaroak izandako martxarekin. 14 urte darrazkigu eta sekula ez du indarririk galdu, urtero urtero koadrila ederra jantzen gara". Larraburuan antolatzen diren ikastaroen artean luzeena da sukaldaritzkoa. Iñaki Pikabea beratarra izan dute irakasle azkeneko 11 urteotan eta hagitz gustura daude berekin. Etxalarko Herriko Ostatu nagusia izateaz gain, ikastaroko emakumeei hainbat jaki prestatzen erakutsi die, Julen Zubieta laguntzaile duela. Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiete, eurekin egindako lanarengatik.

ZJ
Zalain
jatetxea

Hostala
14 logela,
bainu eta
TBerkin

Bera - Nafarroa

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko Istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

XATURETXEA
JATETXEA

T: 948 637 027 • LESAKA

IRU BIDE
Estrategia - Asador

Biarritz, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

ARANTZA

Zerrikiaren transformazioaren inguruko ikastaroa emanen du EHNE sindikatuak

Bertze aldetik, iñauteak otsailaren 8tik 10era izanen dira

Nerea ALTZURI

Hilabetea aitzinera doan heinean, ikasturteak aitzinera segitzen du oporren ondotik. Eskolan berriz ere egunerokora itzuli ziren ikasle eta irakasleak. Eskulanean eta aerobik ikastaroetan ere segitzen dute, ohiko egunetan. Urte bukaeran ordea, hilabete honen bukaeratik hasita hurrengo hilabeteko asteburu zenbaitetan egingen den ikastaro baten inguruko xehetasunak jaso zituzten Bortzak Bat kooperatibako bazkideek. Zerrikiaren transformazioaren eta mondongoaren inguruko ikastaroa emanen du ENHE sindikatuak datozen asteburuetan. Hilabete honen azken asteburuan izanen dira lehen saioak, ortzila eta larunbatean... eta hortik aurrerakoak hurrengo alean emanen dizkitzuegu. Gaiak interesa piztu du eta badirudi lagun taldea animatu dela ikastaroan parte hartzera.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kakariña eta Samiroiak taldeko kideak, finala jokatu ondotik.

Iñauteak

Bien bitartean, hurrengo besta egunetara begira gaude. Urte hasierarekin batera puxka puxka ibiltzeko tenorean murgiltzen gara. Mozorro zuriak ia dagoeneko iñauterietako egunak finkatu dituzte eta otsailaren 8,9 eta 10ean izanen dira aurtentzen. Etxez etxeko pux-

ka biltzeak ohiturari jarraiki egingen dituzte eta seguru gaude urtero bezala egitarau beteak izanen dela iñauterietan. Giroa berotzen joateko beraz, data behintzat helerazi dizuegu.

Kakariña taldea txapeldun

Joan den urtezahar egun bezperan, aben-

duaren 30ean Tximista futbito txapelketa egin zen Ekaitza elkartearen ekimenez. Dozenaka jokalarik eta ikusle hurbildu zen frontoira kirol ikuskizunarekin gozatzeraz. Guzira zazpi talde aritu ziren partidetan jokatzeko eta nor baino nor: Samiroiak, Toiota, Kanal Plus, Keler, Son Goku, Kakariña eta Zer-

batte. 16 urtetik goitiko jokalarik taldeak arratsaldeko lehen orduan hitzordua jarria zuen. Arratsaldeko biak aldera hasi ziren partidua eta lau talde alde bategatik eta hiru bertzetik, bi multzoak elkarren artean jokatu zuten. Ligilaren ondotik, finalaurreko partidak, Samiroiak eta Kanal Plus bategatik eta Kakariña eta Son Gokuren artekoak izan ziren. Azkenean, final nagusian Samiroiak eta Kakariñaren arteko norgehiagokan azken hau garaile suertatu zen, 5-4ko emaitzarekin. 19:30ak aldera bukatu zen futbito saioa eta ondoren hirurogeitama bortz lagun elkartearen afaria izan zuten. Giro paregabeak jarraitu zuten afalondoan ere eta Goizuetako Deus taldeak musika emanaldia eskeini zuen. Urtearen azken aurreko edo bigarren eguna ederki probetu zuten beraz! Kirola eta besta uztartzea posible delako!

PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

TOLDOAK salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-venecianak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003
Bidasoa, 66 behea - BERA

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ALBERGIA
ALBERGIA - JATETXEA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

MALERREKA

Uraren Bidea moldatzeko 94.000 euroko laguntza eman du Nafarroako Gobernuak

Elgorriaga, Ituren eta Zubietako azpiegitura turistikoak agerian eman nahi dituzte

ttipi-ttapa

Elgorriaga eta Zubietaren artean moldatu beharra den Uraren Bidearen finantziarako hitzarmena onartu du Nafarroako Gobernuak. Hori dela eta, 94.000 euroko dirulaguntza ordainduko du, aurrekontuaren %64a. Uraren Bidea berrituz, Zubieta, Ituren eta Elgorriagako udalek turismorako dituzten azpiegiturak aberastu nahi dituzte, eta bidenabar, lotura sortu Doneztebe eta Bertizaranarekin.

Duela gutti Nafarroako Gobernuak hitzarmena sinatu zuen Doneztebe eta Bertizaranako udalekin herrialdeko Mendialdea Sustatzeko Planaren barnean. Bertan Bertizarana eta Elgorriagaren ar-



ARTXIBOKOA

Uraren Bidea Zubietako Errotatik abiatuko da.

teko oinezko bidearen moldatzea 63.000 euroekin diruz laguntzea adostu zen. Azken hitzarmen honek Bertiztik Zubieta arteko 15 kilometroen azken zatia fi-

nantzatzea du helburu. Bidasoa, Ezkurra ibaiak eta oro har ura erdigune hartuz, eskualde horretan diren baliabideak agerian eman nahi dira.

ZUBIETAKO ERROTATIK ABIATUTA

Bide horretatik, gaur egun museo bihurtu den Zubietako errotatik abiatuz eta beheiti aldera segituz, Malerreka dituen

ikuspegi ezberdinak ikus daitezke, bai paisaien aldetik, bai ekonomia-aren aldetik, zerrategi eta abeltxe baten ondoan pasatuz.

Iturenen, inauterietan joaldunek egiten duten ibilbideaz gozatzeaz gain, lehengo ikuspegiak ikus daitezke.

Elgorriagara ailegatzeari berritzen ari diren bainuetxearekin osasunerako uraren onurak ikusi eta gozaten ahaliko dira. Gisa berean, Elgorriagako errotan egin beharra den urari buruzko ezagutze zentroa lotuko ditu bide berriak.

Azkenean Doneztebera segituz erreka bazterreko proiektuak lotura egingen du Bertizaranako bertze azpiegitura turistikoekin eta Bertizko jaurerriarekin.

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634
MERKEALDIAK

albornozak • mantelak
 edredoi nordikoak • kuxinak
 che estalkiak • maindreak
 toailak • edredoi-azal nordikoak

DONEZTEBE

Erreka elkarteko kideek kirol eginez akitu zuten urtea

Mendaurrera igoz eta San Silbestre lasterketan parte hartuz

ttipi-ttapa

Doneztebeko Erreka Kirol Elkarteak abenduaren 31n bi ekitaldi antolatu zituen urtea kirola egiten bukatzeko eta lortu zuen, bietan partizipazio maila izugarria izan zelako.

Goizeko 7:30etan hitzordua mendizaleek zuten, eta ohitura den bezala Mendaur mendira egin zuten igoera. 60 pertsona inguru bildu zen eta urte zaharrari agurra eta berriari ongietorria behar bezala eman zioten tontorrean.

I. SAN SILBESTRE LASTERKETA

ARRAKASTATSUA

Arratsaldeko 6etan, lasterketarako tartea izan zen, Doneztebeko I. San Silbestrea burutu baitzen. Parte hartzea, aurreikuspen guztiak hautsiz, 75 korrikalariena izan zen. Maila hagitza ona izan bazen ere, gehien nabarmendu behar dena da Doneztebeko dozenaka gazte eta ez hain gazte parte



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekako mendizaleek Mendaur kaxkoan agurtu zuten 2006. urtea. Aurten ere hainbat ateraldi egingen dituzte.

hartu zutela. Ibilbide guztia herriko Alde Zaharrean izan zen eta giro izugarria izan zen jendearen artean. Aurten go arrakasta ikusirik zita hau urterokoa bihurtzea dute burutan antolatzaileek.

Sailkapenei dago-kienez, gizonetako

Patxi Irazoki igantziarra nagusitu zen, 12 minutu eta 57 segunduko denborarekin. Bigarren, Iñigo Lasaga etxalartarra izan zen, 13 minutu eta 5 segunduko denborarekin eta hirugarren Angel Garate iruritarra, 13 minutu eta 7 segunduko denborarekin.

Nesken artean, Teresa Fernandez gailendu zen, 14 minutu eta 31 segunduko denborarekin, bigarren Cristina Arbues izan zen, (14 minutu eta 55 segundu) eta hirugarrena Doneztebeko Ana Zelaieta, 15 minutu eta 34 segunduko denborarekin.

LANA

620 lagun langabeteekin akautu zen urtea

ttipi-ttapa

Langabeziak goiti egin du eskualdean 2006. urteko azken bi hilabetetan.

%10,40koa izan da gorakada eta langabetuak orotara 620 dira.

Urte osoko estatistika eginez, garbi geratzen da langabeziak bi norabide izaten dituela: bata maiatza eta urri artekoa, eta honetan langabetuen kopuruak behiti egiten du turismo eta zerbitzuei esker, eta bertzea, azarotik apirilera, non garbi ikusten den lan gutxiago dagoela, langabeziak goiti eginez.

Behin turismo kanpaina akituta, azaroan langabetuen kopuruak 48 lagunetan goiti egin zuen, eta hala, 561 langabetik 609ra pasatu zen. Baina kontua ez da hortan geratzen, izan ere, abenduan berte 11 pertsonen izena eman baitzuten Doneztebeko Enplegu bulegoan eta 609tik 620ra pasa da. 251 gizon lanik gabe daude eta 369 emakume.

larkilanak

ARQUITECTURA ETA HIRIGINTZA

ESTRATEGIA PROIEKTOK
URERAKO PROIEKTOK
ETRE BERRITZAK
LABORAK
KONSULTAK
INFORMATIA 3D

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDO TLF 948 581 831

ZALDUBI
SUKALDEKO MOBLEAK

Martin Lizasoain Adonza

Etxetresnak · Armairuak
Komunak · Manparak

Tel: 948 580 562 · Faxe: 948 581 859
Zaldubia Industrialdea · 31730 IRURITA

ITUREN

Ander Erasun aizkolari gazteak ongi akitu zuen urtea

Urrezko Aizkolari gazteen binakako txapelketako saioa irabazi zuen Jon Rekondorekin batera

Arkaitz MINDEGIA

Abenduaren 30ean Urrezko Aizkolariaren Binakako Txapelketa jokatu zen Asteasuko pilotalekuan. Txapelketa honen barrenean Urrezko Gazte Txapelketari ere hasiera eman zitzaion. Alkizaleten II asteasuarra eta Iker Gorriti uhartearra Ander Erasun aurtiztarraren eta Jon Rekondo leitzararren aurka aritu ziren. Eskualdeko aizkolari gazteak saioa irabazi eta aitzinera egitea lortu zuten.

Modu honetan, Ander Erasun aurtiztarrak modu ezin hobean akitu zuen beretzat ona izan den 2006. urtea.

Uztailaren 2an, Arabako Ozaetan Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketan parte

hartu zuen. Uztailaren 10ean Nafarroako Aizkolari Gazteen San Fermín Sarian hirugarren izan zen Iruñean eta irailaren 30ean Nafarroako Aizkolari Gazteen San Migel Saria irabazi zuen Igantzin.

Urriaren 15ean, Nafarroa Oinezeko herri kirol erakustaldian parte hartu zuen Mikel Mindegia bikote zuela, Donato eta Oihan Larretxearen kontra. Udan erakustaldi batzuetan ere parte hartu zuen.

Ibintzaren zozketan saridunak

Urtarrilaren 5ean, errege bezperan, Ibintza kultur taldeak jendaurrean egin zuen zozketan hiru saridunak lurrendarrak izan ziren; le-

hendabiziko saria zari eder bat, 2.030 zenbakiarekin, Ana M^a Perurena. Bigarren saria, bizikleta 1.373 zenbakiarekin Unai Bereau eta hirugarrena 2.028 zenbakiarekin Altxunea erretegiaren 2 lagunendako afaria David Peurenari egokitu zitzaion.

Errege bezpera

Urtarrilaren 5ean urtero bezala, Ituren Aurtiz eta Zubietan errege bezpera gau berexia izaten da. Iturengo herriko ostatuan 105 lagun eta Aurtizko ostatuan 30 elkartu ziren afari eder baten bueltan. Ohiturari jarraituz Zubietarrak joareekin goizeko 2:30ak aldera Aurtiztarrei bisita egin zieten eta Aurtiz-en denak elkarrekin joareak jo ondotik trago



UTZITAKO ARGAZKIA

Urrezko Ezteiak

Manuel Mindegia eta Rosalina Elizalde aurtiztarrak otsailaren 27an 50 urte eginen dituzte ezkondurik.

bat egin eta Iturenera joan ziren. Herriari buelta eman eta azken geldialdia denak elkarrekin Zubietan izan zuten. Gau polita izaten da hau, orain inauteriei itxaron beharko diogu.

Mihiluze

Euskal Telebistan Kike

Amonarriz eta Ilaski Serrano "Mihiluze" saioan, bi herritarrek parte hartuko dute, Arkaitz Mindegia eta Mirian Altzuri. Urtarrilaren 3an Donostian egon ziren kasping ttiki bat egiten eta orain otsailean grabatzen joan dena. Zorrite on!

Belarra
jatetxea
948 450 306
Armeztia karrika
DONEZTEBE

Ark_b arkitektura bulegoa
Erakuntza
Hirigintza
Udal-aholkularitza
Celia Lana Ranz
Huarte Gotzal 7 - 31860 Leitza
64500478 tel

ANTZUZELAI
S.L.
Tel: 948 631 317
HARRI NATURALA
Alkatzen eta Lanteren
Materialak: Harriak, Zuloak, Murrak, Lurreak, Entseak, Harriak, Zuloak, Murrak, Lurreak, Entseak, Harriak, Zuloak, Murrak, Lurreak, Entseak.
ZINDEARRIA
ADURARRA
ZURAK
Irungo errepublika
BERA

Pitti
eskabazioak
Tel: 616 513 491
Mendiak eta 34 ZUBIETA

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
Melamina taulak
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
Txapaz estalitako taulak
Entzimerak
Ate arruntak eta sukalde mobilendakoak
Pintura eta bernizak
Bainurako mobilak eta osagaiak
KIT mobilak, esku-erremintak, etab...
Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

GOIZUETA

«Minbiziak» jota omen daude herriko insignis pinu gehienak

Iruñeak ez dio oraindik irtenbiderik eman arazo larri honi

Esteban AROTZENA

Tekniko askoren aurreikuspenak betetzen baldin badira, Goizuetako ekonomiarentzat oinarri-oinarrikoa den insignis pinua urte gutxiren barrenean desagertu egingen da gure mendietatik. Fusarium Circinatum onddoak kutsatuta omen daude hemengo pinudi gehienak Nafarroako Gobernuako Mendi Departamentuak egindako azterketan arabera. Insignisen minbiziak bezala ere ezagutzen den gaitzak ihar-tu egiten ditu arbolak eta

sendaezina da oraingoz. Goizuetan ez ezik, inguruko herrietan ere zabaldu da onddoa, baina badirudi gurea izan litekeena kaltetuena.

Kantabria, Bizkaia edo Gipuzkoan gai honi ekin baldin badiote ere, Nafarroako Gobernuak ez du oraindik inolako erabakirik hartu, publikoki behintzat, gaitz honek sortutako kalteei aurre egiteko. Udaletxean esan zigutenez, iazko ekainean deitu zituen Burgete kontseilariak hainbat herrietako udal ordezkariak honetaz



ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Herriko haur guziek jaso zuten oparixoren bat hiru erregeen eskuetatik ilbeltzaren 5ean, Gurasoen Elkarteak antolatutako kabalgata ikusgarrian.

mintzatzeko, baina gerostik ez omen dute deus berririk jaso.

MADRILGO BERRIAK

Dena den, garrantzitsua izan litekeen berria jaso genuen kronika hau inprentara bidaltzera gindoazenean: Madrilgo Nekazaritza Ministerioak egin omen du dagoeneko Fusarium-ari buruzko diagnostikoa, eta Nafarroa osoan Goizueta eta Arano pinudiak bakarrik

omen daude gaitzak jota. Dirudienez, kaltetuei laguntzeko neurrietako bat ondorengo birlاندaketa %100ean subentzionatzea da. Txostenak ez omen du deus esaten ihartutako pinuen truke jaso beharreko laguntzaz.

Udal tasen iguera

Azaroko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak aurtengo tasen iguerak. Hori kontutan

hartuta, urarena, esate baterako, etxe arruntetako 30 eurokoa izan da eta 60koa industrialak. Zaborrena, berriz, 31,11 eta 57,3 gehiazko KPIa, hurrenez hurren.

Kristal bilketa

Kristal jasotzeaz arduratzen den Ecovidrio enpresak udalari jakinarazi zionez, 1.756 kilo beira jaso ziren uztailean eta 2.886 abuztua.

ARESO

Eluseder inguruko sutearekin bukatu genuen urtea

Juana Mari SAIZAR

Urte berriari lasaitasunez hasiera eman diogu. Abenduaren 31n, 18:30ean Eluseder inguruan sua piztu zen. Leitzako suhitzailak itzali zuten. Jende asko konturatu omen zen, baina Mandriladorako langile batek alarma eman zuen. Sutea nahi-

ta eragina ote den susmoa dute suhitzailerek, garai honetan artzainek baimena izaten baitute egunaz larrea garbitzeko sua erabiltzeko.

Eguberrietako oroigarriak kendu dituzte

Udal langilea Eguberria gogoratzen digu-



ARTXIBOKOA

Oporraldiaren ondotik, herriko obrak berriro hasita daude. Oraingoa hainbat aldiz errepedea moztuta egoten da eta zeharkako bideak erabili behar dira. Erlatxe bidean ere pareta egin dute eta bidea zabaltzeko eta zola berritzeko lanak bukatzen ari dira.

ten hainbat gauza kentzen aritu da: plazako

jaiotza, olentzeroren txabola, eskolako jaiotza

eta beste. Orain egunerokoari heldu diogu.



INAUTERIAK

2007

Leitza



Ituren



Zubieta



Sunbilla



Aurtitz



BIKOITZ**Taberna**

- Pintxoak
- Tarta eta opilak
- Pastelak

HOTEAK ONGI PASA !

Elbarren, 16 • LEITZA • Tfnoa: 948 510 072

**SAGASTI
JATETXEA**

ongi pasa ihoteak!



Elbarren, 98 • LEITZA • 948 610 637

MAIMURHerriko Plaza
LEITZA
Tfnoa-Faxa:
948 510 146

- Prentsa - opariak - testu liburuak
- Plastifikatzeak - enkuadernatzeak
- Inprenta lanak - fotokopiak

LEITZA Garagea**Peugeot Agentzia**Direkzio eta ordenadore
bidezko azterketak**STIHL** Stihl Agentzia

Amazabal, 29 - Tel: 948 510 466 - LEITZA

**MUSUNZAR
OSTALUA**

- Jatetxea
- Logelak

Ihoteak ongi pasa

Elbarren, 14 • Tel: 948 510 607 • 948 510 475
LEITZA**ARAKINDEGIA**
jatetxea

- Menua
- Karta
- Garaian garaiko otorduak

Elbarren, 42 • Telefonoa: 948 510 052 • LEITZA

LEITZA

ILBELTZAK 27 LARUNBATA eskea

16:00: *herriko eskea* trikitilari, txistulari, mozorro eta akordeolarien laguntzarekin.**20:00:** *perkusio taldearen* kalejira.**00:00:** *kontzertua* Atakabeltza gaztetxean. *Exum - Nukat*

ILBELTZAK 28 IGANDEA gurdien kalejira

12:00: *mozorro* eta *gurdien* kalejira INCANSABLES txarangaren laguntzarekin.**12:00:** *Txu-Txu tren*a herrian barrena.**14:30:** mozzoratutakoen *Herri bazkaria*.**16:00:** *Txu-Txu tren*a herrian barrena.**18:00:** *kalejira* INCANSABLES txarangarekin**19:00:** *dantzaldia* karrapen GAU-BELA taldearekin.**23:30:** *dantzaldia* karrapen GAU-BELA taldearekin.**Ondoren:** *kalejira* INCANSABLES txarangarekin.

INAUTERIAK 2007

ILBELTZAK **29** ASTELEHENA eskea

- 09:00:** *baserrietako eskea* Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Errekara puske biltzea, herriko txistulari eta Incansables txarangarekin.
- 16:00:** *puzgarriak* Amazabal pilotalekuan.
- 19:00:** *dantzaldia* karrapen GAU-BELA taldearekin.
- 23:30:** *dantzaldia* karrapen GAU-BELA taldearekin.
- Ondoren:** *kalejira* INCANSABLES txarangarekin.



ILBELTZAK **30** ASTEARTEA eskea

- 09:30:** *baserrietako eskea* Erasote auzora.
- 11:30:** *popi, Zarratrako eta Fer pailazoak* karrapen.
- 14:30:** *bazkaria* Aurrera elkartean.
- 15:00:** *makilaje tailerra* ume eta gaztetxoentzat udaletxeko lehenengo pisuan.
- 17:00:** Ume eta gaztetxoek *kalejira* INCANSABLES txarangarekin.
- 18:00:** *txokolatada, buru handiak, trikitalariak* plazan. Ondotik goxokiak.
- 19:00:** *dantzaldia* karrapen GAU-BELA taldearekin.
- 23:30:** *dantzaldia* karrapen GAU-BELA taldearekin.
- Ondoren:** *kalejira* INCANSABLES txarangarekin.



**PERITZA
TABERNA** 

ongi pasa ihoteak eta txintxo ibili



Aliprox

Udalgaitza - Karrantza - Zerbitzua - Prestakuntza

Tel: 948 510 007 - 948 610 657 ongi pasa inauteriak!
Elbarren, 20-71



Kafetegia - Gozotegia - Okindegia

Ogi egin berria, prentza
gogari gogoz gogoz
Pastak, pastelak, tartak

Elbarren, 20 LEITZA - Tfnoa: 948 510 720



TALOAK

GURE BETIKO TALOA

TALOAK:
HUTSAK
GAZTAREKIN
GAZTA ETA TXINGARRAREKIN

TALO-PIZZAK:
TXISTORRA
TXINGARRA
BEGETALA
URDAIAZPIKO EGOSIA

*Aukera ekologikoan
ala konbentzionalean*

*Etzera eramateko!
Berotu eta jateko prest!*

TALOTEGIA S.L.L. Manuel Lasarte 1, behe, atzekaldea,
31880 LEITZA (NAFARRUA) T. 948 510 999 F. 948 610 996
E. taloak@taloak.com www.taloak.com



Lizun
GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • SUNBILLA • Tfnoa: 948 450 862

JONAGESTA



Garaigarri, 26
SUNBILLA
Tfnoa: 670 251 632
jonagesta@hotmail.com

ITTURBURU OSTATUA

ongi pasa inauterietan!

Nagusia, 23 • SUNBILLA • 948 451 703

FONDA OSTATUA

ongi pasa inauterietan!

DDNIBANE KARRIKA • SUNBILLA
948 450 180

Maria Jesus harategia

Bertako produktuetan espezializatua



ONGI PASA INAUTERIAK

Karrika nagusia 11 • SUNBILLA • 948 451 530

IRURI MOTOR



Aukerako autoak
4x4 autoetan modelo guztiak
Salerosketa zerbitzua
Furgonetak
Iruña-Irun errep. zaharra • SUNBILLA
Tfnoa: 948 450 399



SUNBILLA



URTARRILAK 27 OSTIRALA *baserriak*

- 9:00:** herriko gazteak *gosaria* Itturburu ostatuan. 2 taldetan banatu eta *baserrietara* joan dira, Modesto eta Jose Angel akordioilariekin. *Bazkaria* baserrietan.
- Ondoren:**
- Atsaldean:** herriko hurrek *txokolatada* Ulibeltzak elkartean
- 16:00/18:00:** *musika* Agerralderekin.
- 20:00/22:00:** *dantzaldia* Agerralderekin udaletxeko arkupeetan.
- 21:30:** eskean dabiltzan gazteak *afaria* Itturburu ostatuan.
- Gauean:** *Emakumeen afaria* Ulibeltzak elkartean,
Ondoren: *sorpresa* eta *dantzaldia* Salaberriekin.

URTARRILAK 28 LARUNBATA *herria*

- 10:00:** *gosaria* Itturburu ostatuan. Herrian zehar *eskean ibili* Joxe Angel eta Modestorekin. Eskean dabiltzanak *Bazkaria* Fonda ostatuan.
- 20:00/22:00:** *dantzaldia* Modestorekin udaletxeko arkupeetan.
- Gauean:** *afaria* Elor-txurin.



INAUTERIAK 2007



URTARRILAK 29 IGANDEA *karrozak*

- 11.00:** *karrozen desfilea*, opillak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa banatuko dira ikusleen artean.
- Ondotik:** *ikuskizuna* herriko frontoian eta ondoren zerri, bildots eta urdaiazpikoaren zozketa.
- 14.30:** *bazkaria* Ulibeltzak elkartean.
- Ondotik:** *dantzaldia* Jalisko Band taldearekin.



5

ttipittppladuzitefiofomogeligarria
438.zbk0DF1B18

Marisol
janaridenda
NAGI BAZA INAUTERIAK
Karrika nagusia, 7 • SUNBILLA • 948 450 608

BAZTAN
BIDASOAKO
sagardotegiak

LARRALDEA LINDURRENBORDA

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA
Telleria auzoa • LEKARIZ
948 452121 • 625 454317

LINDURRENBORDA
Nabal auzoa • LEZAKA
948 637212

ALTZURI MENDI LAN - ESPEZIALIZAZIOA
Tel./Fax: 948 450 504
Móvil: 659 867 287
699 461 394
SUNBILLA - NAIARBEOA

Kimatze lanak • Zerrakurak • Plantazioak
Ongi pasa inauterriak

JOKIN
IGELTSARITZA
OROKORREAN

ERREFORMAK OROKORREAN:
• Sukaldeak, Komunak, Etxebizitzak...
eta gutxitako berritar lanak

ongi pasa inauterriak

Tel: 948 451 478 - Mug: 615 751 836
mekaldea, 9 - 31791 SUNBILLA (Nafarroa)

Tel: 948 450 773
Mugikorra: 619 416 959
Auloa Baserría - SUNBILLA

ESPELOSIN
eraikuntzak



Asteburuetan,
besta egunetan
eta bezperatan
Irekia.

**ALTZUNEA
ERRETEGIA
ITUREN**

**INAUTERIETAN
IREKIA**

Tfn: 948 450 410

DISFRACES LA MASCARA



- Ikasleentako mozorroetan
- den-dena daukagu
- Era guztietako osagamen abajatuak eta sarrerak
- Festei prestakuntza
- Makillaje profesionala

mascara@cin.es

Abejeras, 6 • Tel-Fax: 948 25 00 04 • IRUÑEA



**ZUBIETAKO
TAXIA**

8 BIDAIRIENDAKO TOKIAREKIN.
PERTSONA BAKARRAK ERE GARRAIATZEN DITU
PLATAFORMA ELEKTRIKOZ EGOKITUTA
BI GURPIL AULKIRAKO ETA 5 LAGUNENDAKO

TAXI guztiak bezala TARIFA BERDINAK

676 553 656 • 948 451 953



**INAUTERIETAKO
BIDEOAK ETA
DVDAK SALGAI**



948 635 458



ttipi-ttapa
Telebista




ITUREN, AURTITZ



Otsailaren 25ean Joaldunek eginen duten lehen **puxka biltze** eta **afaria**rekin hasiko dira Iñauteak Aurtitz, Ituren eta Zubietan.

Larunbatean izanen dute segida, **afaria** eta **dantzaldia** egiten baita egun horretan.

Igandean, jantzi osoa paratuz lehen **ibialdia** eginen dute joaldunek karriz karriz.



URTARRILAK 30 ASTELEHENA

Zubietako joaldunak mozorro eta karrozek lagunduta **Aurtiztarrei bisita** eginen diete, herriari bira eman eta salda beroa hartu ondotik **Iturenera** joanen dira. Lasagako Zarandia parean, denak elkartu eta herriari buelta emanen diote. Joaldunek aperitiboa hartzen duten bitartean, plazan karroza bakoitzak bere ikuskizuna eginen du.

Eguerdian 15:30ak aldera, bakoitza bere herrira itzuli eta **bazkaria** izanen dute elkarteetan.

Gauean ordu tikiak arte **bestak** segituko du.

URTARRILAK 31 ASTEARTEA

Ituren, Aurtitz eta Lasagako joaldunek bisita bueltatuko diete **Zubietarrei**, urtero-urtero, batzuen ustez natura ernatzeko eta uzta berri eta ugariak emateko egiten den ohiturari eutsiz.



INAUTERIAK 2007

ETA ZUBIETA

OTSAILAK 1 ASTEAZKENA

Asteazkena lasaiagoa izaten da, bakoitza bere herrian gelditzen baita, eta **bazkari** eta **afarien** artean besta egiteko eta azkeneko gau eta egun luzeetan gertatutako balantzea egiteko erabiltzen dena.

Aurtitz eta Iturenen, halere, etxez etxe dirua eta **puskak biltzen** eta kaferen bat hartzen ibiltzen dira gazteak eta Zubietan berriz bazkalondoren egiten dira inauterietako kontuak.



OTSAILAK 3 eta 4 LARUNBATA eta IGANDEA

Kontuen eguna izaten da, hain zuzen, Iñaute-
etako azkena. Egun horretan ez da joararik jotzen.
Zubietan asteakenean egiten dute. Iñauteak
akitu eta hurrengo larunbatean egin ohi da Ituren-
en eta **Aurtizen** igandean. **Iturenen** bazkaria
izaten dute Herriko Etxean. Bazkaldu aitzinetik he-
rriko dantzariak bertsolariak eta aizkora apostua
izaten dira herriko plazan.

Bazkaldu ondotik dantzaldia izanen da eta,
mozkorraldia izugarria ez bada, bederen, besta-
rekin segitzeko aukera dago, afari eta dantzaldian.

Aurtizen xaharren afaria egiten dute eta Ituren-
en kontuen afaria, iñauteak heldu den urtera ar-
te agurtuz



Eider
Ileapaindegia
Ornatuak, Iturats, Iturats, Iturats, Iturats
Lanurak, Iturats, Iturats, Iturats
Kontuak, Iturats, Iturats, Iturats
Tel: 948 45 11 38



M INDEGIA
ZUBIETA
Aurrekontua
konprometzun
gabe



- Ateak • Terrazak • Eskailerak
- Teilatuko zurak • Sukalde mobileak...
- Zurgin lanak orokorrean

Tel: 948 451 906 689 531 012 AURTIZ

Herriko
Ostatua
ITUREN

Herriko Plazan
948 45 14 30

- Landa etxea 2 ohatzeko 3 logelarekin
- Euskal zerria

MADERAS
SANTESTEBAN



ZERRATEGIA

- Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
- Bigak
- Teilatutako egiturak
- Osagarriak
- Autoklabe tratamendua
- Montaje obran

ZUBIETA • 948 450 877

ERRANDONEA
OSTATUA

INAUTERIETAN
GIRO
PAREGABEA

948 450 216 • ZUBIETA

Zertan da?

Hainbat prestakuntza saio emanen dira, honako hauek lantzeko: Negozio bat abian paratzeko motibazioa bultzatzeko; gaitasun tekniko eta pertsonalak eskuratzeko, nor bere lana sortze aldera; partaideak beren negozio ideiak bilatzeko prozesuaren protagonistak izateko, eta hasieratik beretik ideia bat "bameratzeko" eta ideia hori enpresa proiektu bat bihurtzeko.

Norentzat izan daiteke aproposa?

Emakumeentzat, gazte tituludunentzat, etorkinentzat, gizarteratze arazoak dituztenentzat. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte: Nafarroako Mendialdean bizi beharko dute, negozio ideia bat izatea garatzeko edo edukitzea nahi izatea, edo, besterik gabe, somenaren eta autoenpleguaren inguruko jakin-mina izatea.

Zertan da tailerra?

1. MODULUA: **NEGOZIO IDEIAK IDENTIFIKATU** : Sormena landu eta negozio ideia on bat bilatu.
2. MODULUA: **AURRE-EKITEA**: Ekiteko autonomia eta autoestimua; nola kudeatzen dugun gure denbora; Nafarroako enpresa ehuna; informatika.
3. MODULUA: **SUSTATZEKO GAITASUNAK**: Enpresa proiektu bat garatzen hasteko funtsezko 10 elementuak.

Non izanen da tailerra?

**CEDERNA-GARALUR. BIDASOAKO ZERBITZU ZENTROA
 ALKAIAGA INDUSTRIALDEA, ALASTA KALEA, 2B LURSAILA - LESAKA.**

	EGUNAK	ORDUETAKA	ORDUAK GUZTIRA
1. MODULUA	OTZAILAREN 6-7-8a	9:30 - 13:00	30 ORDU
2. MODULUA	OTZAILAREN 13a	9:30 - 13:30	20 ORDU
3. MODULUA	OTZAILAREN 20a	9:30 - 13:30	20 ORDU

* OHARRA: Tailerrak bakoitza bere aldetik egin daitezke.

ARGIBIDEAK ETA IZENA EMATEA:
 CEDERNA-GARALUR Elkarte, BIDASOAKO ZERBITZU ZENTROA
 ALKAIAGA INDUSTRIALDEA, LESAKA.
 Tel: 948 62 51 22 / 619829289 (Amaia Pando)
 TAILERRAREN KOSTUA: DOAN (% 100ean suberztiatuta)



Avenida Marcelino Calvez, 75 nave AA3 - 31014 PAMPLONA
 Tel. 948 20 44 97 • e-mail: info@cederna.es
 www.cederna.es



• LUR MUGIMENDUAK • ZANPATZEAK • BERDINKETAK
 • URBANIZAZIOAK • KANALIZAZIOAK • GARRAIOAK

Tel: 948 451 596 • Faxes: 948 456 168 • 667 424 635 Leku-Eder 6 • SUNBILLA

LEITZA

Igerilekuko aparkalekua gehiago erabiltzeko eskaera egin du Udalak

Patxi Arrazola kalean hainbat auto pilatzen dira egunero

Joseba URKIOLA

Leitzako alkateak, Udalak herritarrentzako hilerio plazaratzen dituen bando moduko batean oharrarazi duenaren arabera, igerilekuko aparkalekuari ez zaio behar bezalako funtzionaltasunik ematen eta eguneko lanak bukatu ondoren, hutsik gelditzen dela nabarmendu du.

Txanponaren beste aldean, Patxi Arrazolak bizi duen egoera egongo litzateke. Bertan egunero-egunero auto mordoa pilatzen dira eta eguneko une askotan, edozein modutan eta gaizki utzitako kotxe asko ikus daitezke.

Hau horrela, Udalak

argi utzi nahi izan du Patxi Arrazola auzoan gerta daitezkeen kotxeen arteko ezbeharrez ez dela arduratuko. Dena den honelako gauzak gerta ez daitezkeen eta aipatutako auzoak berak deskongestio apur bat izan dezan, herrian eskuragarri dauden aparkalekuak erabiltzeko gomendatzen da. Adibiderik egokiena, igerilekuetan dagoen aparkalekua litzateke.

Iruñerako autobusen ordutegi berria

Mariezcurrena S.L. autobus enpresak, hainbat herrietako udalek hala eskatuta, Iruñera joan ahal izateko ordu-



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

Erregeen etorrerarekin Gabonei amaiera

Olentzero etortzearekin batera aurtengo Gabon jaiak hasiera eman bazitzaie, Ekialde Hurbileko Errege Magoak izan dira ia bi aste iraun dituzten egun bereziei amaiera emateaz arduratu direnak. Hilaren 5ean jende ugari bildu zen Leitzako kaleetan Hiru Erregeen etorrera ikusteko. Urtero bezela Leitza herrian sartu eta lehen geldialdia, errotonda alboan Gabon jai guztietan ezarrita egoten den jaiotza berezian egin zuten. Bertan Asketa abesbatza lagun, Jesus hartxoari muin eman eta Jose eta Maria gazteei zorionik beroenak eskaini zizkieten. Ongi etorri honen ondotik, eguneko protagonistak beren laguntzaile arduratsuak lagun, herriko plazara joan ziren. Hemen Erregeek herriko eta inguruko herrietako haurrak soinean hartu eta berauen nahi zein desio guztiak entzuten egondu ziren. Bukatzeko eta Ekialde Hurbilerako bidaiak txartela hartu aurretik, etxez-etxe bakoitzari zegokion opari eta sorpresak uzten ibili ziren.

tegi berriak ezarri ditu. Hauexek lirateke Leitzari dagokionez, hilaren 2an indarrean jarri zen ordutegiaren xehetasunak:

Astehenetik-ostiralera irteera: goizean 7:50ean eta arratsaldean 15:30ean eta itzulelana: eguerdian 13:00etan eta arratsaldean

19:30ean. Larunbatean irteera: goizean 9:00etan eta arratsaldean 15:30ean eta etorrera eguerdian 13:00etan eta arratsaldean 19:30ean.

Ihotetan ere trafiko azaroak

Ihotetako programaren berri erdiko gehigarrian duzue, baina anto-

latzaileek egunotan herrira oinez etortzeko aholkua eman dute, igandean bereziki, kotxeak trabarik ez egiteko. Modu berean, herritarrak eta bisitariak atsaretzea (mozorrotzea) animatzen dute. Gaueko taldearen atsedenean Incansables txarangak joko du gauero.

BURKAITZEA
- ostatu
- erretegia
Zugiteramardiko bidea, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa

BEHETIK
aulki jasotzaileak

943 372 870

luis cestau baraibar arkitekto teknikoa leitza 607204485 luesba@msn.com

BAZTAN

Irurita eta Elbete bakarrik gelditu dira alkaterik gabe

Almandoz, Oronoz eta Arraiozko alkateek bi urtez segituko dute

Maite OTEIZA

Errege eguneko batzarrarekin alkateek akabaila eman diote beren agintaldieei. Bertan herriko urteko kontuak herriari aurkezten diote, herritarren informaziorako.

Aurten bortz herritan alkate berrien aukeraketa egin behar zen. Gogoratuko duzuen bezala, Eguberri eguneko batzarreen ondotik, sei herri gelditu ziren alkate gabe, baina urtarrilaren 2an, Amaiurren Miguel Jose Ariztiak Juan Mari Alemanen lekua hartu zuen.

Beraz, Almandoz, Oronoz, Arraioz, Irurita eta Elbete zeuden alkaterik gabe. Lehenengo hiruetan zeuden errepikatuko dute berriz bi urteetarako: Almandozen Luis Roldanek (bosgarren urtea), Oronozen Bittor Elizagoienek (hirugarren urtea) eta Arraiozen Pello Agerreberek (bosgarren urtea). Iruritan eta Elbeten, berriz, mo-



ARTXIBOKOA

Luis Roldanek hirugarren legealdia beteko du Almandozen.

mentuz alkaterik gabe daude.

mentuz alkaterik gabe daude.

KUARTELETAKO KIDEAK

Urtarrilaren 2ko batzarrean, lau kuarteletako batzorde kideak eza-

gutzeria eman ziren: Baztangoizan Juan Luis Karrikaburu, Erberean Peio Iriarte, Elizondon Peio Oskariz eta Basaburuan Andoni Barretxe izanen dira.

FLASH

Inauteak

Errege asteburuarekin batera Baztanen inautegaraia hasi zaigu. Beti bezala Orabidekoak lehenbizikoak izan dira, ilbeltzaren 7 eta 8an, Anizen segitu dute 14 eta 15ean. Otsailaren 19-20 artio, herri hauek izanen dira: Arizkun, Erratzu eta Elizondon. Bitarten haurrek Oilar-dantza, Egun Ttuntun edo Orakunde ospatuko dute.

Gizakunde eta Emakunde

Otsailaren 3an, Gizakunde Eguna ospatzeko asmoa du Jo ala Jo taldeak. Horretarako, mozo eta dantza ikastaroak egingen dira Erratzun eta Gamiozarrean. Emakunde eguna ere egiteko ideia dute, Elizondoko Gaztetxekoekin batera, Elizondo inauteetako igandean.

Zerbitzua eta komunikazio teknologiak hobetzeko dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak alde batetik udaletako zerbitzuen kalitatea eta kudeaketa eta, berriz, bertze aldetik, informazio eta komunikaziorako teknologiak hobetzeko dirulaguntzak eman ditu. Baztango Udalak 5.000 euro eskuratuko ditu egoeraren azterketa eta diagnostikoa egiteko proiekturako, bertze 700 euro ezagutzaren kudeaketa, gaitasunen kudeaketa, lan giroa, lan karga eta lanpostuen azterketa eta balorazioa egiteko eta, azkenik, 5.500 euro erakundearen hausnarketa estrategikoa egiteko. Bertze aldetik, Balleko Udalak 2.000 euroko dirulaguntza izanen du web orria hobetzeko.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iruñeaz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatura
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte karkika
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 · 948 581 853

ITURRALDE
pvc & aluminio
667 264 025 · 948 581 967
maxene@terra.es

ZUGARRAMURDI

Atxuria mendi taldeak urteko ateraldien egutegi zabala prestatu du

Uztaileko lehen asteburuan Adi mendira ateraldi berezia egingen dute

Margari eta Koro

Atxuria mendi taldeak 2007ko ibilaldien egutegia egin du, eta horretan aipagarriena lehenbiziko hiruak Baztanen Santiagoko Bideko zati bat egingen dela da: salbuespen bezala urtarrilean bi ibilaldi egingen dira (lehenbizikoa Baionatik Zuraidera eta

bigarrena Zuraidetik Otsondora); Otsailean: Otsondo-Elizondo; Martxoan: Baztango megailitoen ibilbidea; Apirilean: Hondarribi-Pasaia; Maiatzean: Zortzi mila-koak; Ekainean: Getaria-Hendaia; Irailean: Bera-Hendaia; Urrian: Arrosara; Azaroan: Aizkorri; Abenduan: ehiz-

tarien etxolara gosaltzera..

Kurtso bukaerako ibilaldi berezia Adi mendira egingen da, uztaileko lehenbiziko asteburuan.

Ekialdeko dantzak

Urtarrilaren 16an ikastaro berri bat ematen hasi dira herrian:

ekialdeko dantzak (dantza egiptziarra, sabelaren dantza eta halakolak). Asteazken egunetik emanen dire, arratsaldeko 18:00etatik 19:30era Akelarrenean.

Oraindik leku batzuk libre gelditzen direnez, apuntatzeko epea irekita dago, eta horretarako nahikoa da 627

457336 telefonora deitzea. Bi talde osatu dire eta horrek egunak hautatzeko aukera ematen du: astearte, ortzegun edo ortzirala.

Bertze gauza bat ere kontuan hartu behar du: partehartzaileek: irakaslea marrokiarra denez, ikastaroa frantsesez emanen dela.



UTZITAKO ARGAZKIA

Atxuria mendi taldekoak Aizkorriara egindako ateraldia. Aurten ere azaroan gateko asmoa dute. Urtero bezala, hilabeteko bigarren igandean egingen dituzte ateraldiak Zugarramurdiko mendi taldeak.



SENPERE

Finantziario planean %35eko defizitarekin hasiko dira Luberriako urtegia eraikitzen otsailean

Abiada haundiko treina lur azpitik pasatzearen alde dago Herriko Etxea

Franck DOLOSOR

Otsaila eta uztaila artean, Luberriako urtegia eraikiko dute. Gan den abenduaren 5ean, izadiaren babeserako kontseilu nazionalak bere baimena eman zuen hain famatu egin diren kakamarloak tokiz aldatzeko. Gogoratu, urtegia egin nahi den tokian mamu horiek bizi direla eta beraz lanak gibelatuak izan direla. Urtegiaren xedea da ura biltzea Urdazuri ibaia gainezka delarik eta beraz uholdeak saihestea. 1983an gaitzeko uholdeak gertatu ziren herrian. Dena den, urtegiak ez du dena konponduko Saratik datorren urak ezin izanen baititu bildu eta gelditu, eta beraz karrika alderat jaus-

ten segituko dute ur horiek. Orain dena prest da lanak hasteko dirua eskas baldin bada ere. 2000. urtean 6.860.205 euroko estimazioa egin zen. %25 estatuak pagatuko du, %30 Paueko Kontseilu Nagusiak, %25 Akitaniako Kontseiluak eta %20 Urdazuri aldeko sindikatak. Halere, 7 urte berantago, gastuak emendatu dira eta orain prezioa 9.837.543 eurokoa omen da. Aurrekonduaren %35 diruztatu behar da oraino lur erosteak eta kakamarloen tokiz aldatzeak gastua gehiago sortu baitute bertzeak bertze.

Abiadura handiko treina

Parise eta Madril abia-



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

Berriki 65 urte bete dituzten senpenterrek beren biltzarra egin dute, ainitz urtez. Behean, Uztaritzeko kantonamenduko Kontseilari Nagusiak urte ona desiratu diete herria biziartzatzen duten guziri.



de berria lur azpitik egitearen alde agertu da ere herriko etxea.

5.106 bizilagun

Azken kondaketaren arabera, 5.106 lagun bizi dira Senperen. 2006an, eraikitzeko 110 baimen eman zituen Herriko Etxeak orotaratzeko 321 etxe egiteko.

Appel Détresse Reketenian

Azkaineko egoitza-utzirik Appel Détresse behartsuak laguntzen di-

tuen elkarte Reketenia, Fagoaga ostatuan, kokatu da. Saltokia irekitzen du ortzegun oroz goizeko 10etik eguerdi arte eta arratsaldean 3ak eta 5ak artean.

Ikastolak egoitza berria

Zaldubi ikastola egoitza berrian sartu da urte hastapenean. Herriko Etxeak Seaskari alokatzen dio berriki egin den etxe berria. Aisialdi guneak ere baliatuko du azpi egitura berria.

Maderas GOMEN
Tel: 948 580 645
Zaldubia Industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroa: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Perrilan egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 - ARIZKUN

SARA

Marrazki txapelketako sariak urtarrilaren 10ean banatu ziren

Hiru eskoletako neska-mutikoeek parte hartu zuten abenduan

Laetitia eta Sandrine

Abenduan Sarako turismo bulegoak hiru eskolen artean marrazki txapelketa antolatu zuen. Urtarrilaren 10ean asteazkenarekin sariak banatuak izan dira. Eskolako bakotxean eta maila bakotxean irabazleak izan dira:

Ikastolan

-CE1 mailan: Eneko Fagoaga, -CE2 mailan: Amaia Etcheberria Astiz, -CM1 mailan: Mikel eta Lorenzo Etchenique, -CM2 mailan: Quentin Guijarro.

San Josepen

-CE1 mailan: Imanol Tapia, -CE2 mailan: Pauline Garbiso, -CM1 mailan: Battit Vidal, -CM2 mailan: Josu Tapia.

Eskola publikoan

-CE1 mailan: Charlotte Pouyet, CE2 mailan: Marilou Huba, CM1 mailan: Clémence Aniotz-behère, CM2 mailan: Ibaia Oreja.

Ama eskolako eta CP mailako haur guziak sariztatuak izan dira. Egun goxotasun osoan bukatzeko, krakada bat eskainia izan zen.



ARGAZKIA: LAETITIA

Gure Irratiari sustengua

Abenduaren 16 olentzerori ongi etorria egin zen plazan eta denbora berean, Gure Irratia laguntzeko (materiala berriz erosteko, gelak berriz konpontzeko...), Sarako bi berriemaileak, Bernadette Amorena eta Jeannot Etcheverigaray, pastiza eta txokolate esne bero salmenta antolatu zituzten. Orotara 1.200 euro bilduak izan dira. Astearte guziz Sarako berriak ematen dituzte goizeko 9etan Gure Irratian 90.5 edo 106.6 frekuentzietan.

Telethon 2006

Abenduaren 7an eta 9an Sarako turismo bulegoak ekitaldi desberdinak antolatu zituen, 1882 euro bildu ziren.

Urte berria

Herriko kontseiluarekin batera, urte be-

riaren kari Sarako elkarre eta herriko langile guziak, Lur Berri gelan konmitatuak izan ziren zintzur bustitze batera.

Errugbia

Urtarrilaren 7an, sarako errubilariek Azkainetako taldearen aurka ari-

tu ziren, erreserbak galdu zuen 13-26 eta lehenak irabazi 9-6. Urtarrilaren 21ean Sarak, Tartas taldearen kontra jokatu du Animainean, 14:15ean erreserbantzat eta 15:30ean lehenarentzat. Hurbil zaiztezte.



Agustin

IRAOLA MARITORENA

Esperanza Sarratea Gamioaren alarguna
Igantzain hil zen 2006ko abenduaren
16an, 81 urte zituela.

Orain arte egon zara zure familikin
Oroitzapen goxoak oroitzean zurekin
Denak negarka gaude pena handiak
orain egongo zara Pello ta amatxikin.

Atta eta ataxi maitea
gure bihotzetan
beti bizirik egongo zara.

ZURE FAMILIA.



Esteban

ERRANDONEA SANZBERRO



Ixteben, Gorospaleko gure artzaia!
Hire bila zebilek hemen jendea,
geure baitako xokoan
gorde haugula jakin gabe.

HERRIKO LAGUNAK.

Beran, 2006ko abenduaren 27an.



Unai

ETXEPARE ELIZEGI

«TXIMO»

Mendiko ilunabarra
Egunsentian negarra
soinurik bada ez da itzaltzen
dantzariaren irrifarra.

TANTIRUMAIRU DANTZA TALDEA.

Lesakan, 2007ko urtarrilaren 7an.



SORTZEAK

Naike Erkizia Ordoki, Berakoa, abenduaren 25ean.
Luka Trillo Goia, Berakoa, abenduaren 24ean.
Christopher Amaguaña Nuñez, Berakoa, abenduaren 21ean.
Koldo Lakar Pacheco, Legasakoa, abenduaren 31n.
Aimar Lopez Pantin, Arantzakoa, abenduaren 18an.
Jaione Opoka Mitxeo, Gaztelukoa, abenduaren 30ean.
Alodia Garazi Manterola Urroz, Iturengoa, abenduaren 12an.
Hegoi Lizarraga Viguera, Leitzakoa, abenduaren 17an.
Manex Etxeberri Pacheco, Sarakoa, abenduaren 1ean.
Maitena Anne-Marie Fagoaga, Sarakoa, abenduaren 16an.
Olaia Garbalena Osinaga, Lekarozkoa, abenduaren 28an.
Irati Santos Saldias, Elizondokoa, abenduaren 30ean.
Eric Adrian Daguilema Quinche, Elizondokoa, abenduaren 25ean.

HERIOTZAK

Esteban Errandonea Sanzberro, Berakoa, abenduaren 27an, 50 urte.
Miguel Antxorena Jimenez, Arizkungoa, abenduaren 29an, 81 urte.
Jose Maria Iturriria Astiz, Lekarozkoa, abenduaren 29an, 80 urte.
Francisco Juanikotena Elorga, Lekarozkoa, abenduaren 29an, 67 urte.
Fermina Loiarde Loiarde, Leitzakoa, urtarrilaren 2an, 83 urte.
Camila Lopez Diez, Leitzakoa, urtarrilaren 3an, 85 urte.
Carmen Lasarte Larrea, Leitzakoa, urtarrilaren 4an, 91 urte.
Manolo Gutierrez Iturria, Igantzakoa, urtarrilaren 3an, 54 urte.
Jose Goia Retegi, Berakoa, urtarrilaren 6an.
Antonio Irtzoki Matxikote, Berakoa, urtarrilaren 5ean, 87 urte.
Maria Albistur Mindegia, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 5ean, 87 urte.
Unai Etxepare Elizegi, Lesakakoa, urtarrilaren 5ean, 29 urte.
Corinne Aubry, Sarakoa, abenduaren 6an.
Joseph Hirigoyen, Sarakoa, abenduaren 6an, 91 urte.
Gérard Goulomes, Sarakoa, abenduaren 13an, 50 urte.
François Jorajuria, Sarakoa, urtarrilaren 4ean, 72 urte.
Maria Isabel Iparrea Irigoien, Elizondon, urtarrilaren 9an, 79 urte.



EZKONTZAK

Mikel Garbalena Goñi eta **Ana Roncesvalles Barrio Fernandez**, Arizkungoa eta Iruñekoa, abenduaren 29an.



Unai ETXEPARE ELIZEGI

«TXIMO»

*Tximo, zeinen abudo
joaki den denbora
nahiz ta probextu duzun
pausotik pausora
azkarregi joan zara
Txoþeren ondora
zuen tokia beti
hemen egongo da.*

ZURE LAGUNAK.

Lesakan, 2007ko urtarrilaren 7an.



Unai ETXEPARE ELIZEGI

«TXIMO»

*Aldagelako zirikatzaille
zelaietako ezker fina
10en hamar, lagunen lagun
jokalari ahaztezina.*



**BETI GAZTEko jokalaria, jokalaria ohi,
entrenatzaile, Gida Batzordea.**

Lesakan, 2007ko urtarrilaren 7an.



Unai ETXEPARE ELIZEGI

*Osaba Unai ez da aspaldi
elkar ezagutu ginela
Handitzean zutaz oroitzeko
badakit aski ez dela
Baina aitatzok aipatuko dit
futbolari ona zinela
Amatxok ere oroitarazi
mutil jatorra zinela
izeba Estitxuk kantatuko dit
maitagarria zinela.*

Lesakan, 2007ko urtarrilaren 7an.

PILOTA

Baztango XXV. pilota txapelketaren finalak jokatu ziren abenduaren 16an Elizondon

Guzira 114 pilotarik parte hartu dute txapelketa honetan

Aitor AROTZENA

Baztango 25. Pilota txapelketaren finalak jokatu ziren abenduaren 16an Elizondoko pilotalekuan. Guzira 114 pilotarik parte hartu dute txapelketa honetan.

Txikien mailan, Iñigo Iribarren eta Andoni Gaskuek 18 eta 4 irabazi zieten Aritz Merino eta Ibon Irazokiri.

Umeak B mailan, Pello Oskoz eta Ander Ramosek 18 eta 16 irabazi zieten Julen Larretxea eta Iñigo Dendarietari.

Umeak A mailan, Asier Bertiz eta Sergio Oskozek 18 eta 16 irabazi zieten Enaitz Anso eta Iker Espelosini.

Kimu mailan, Asier Erasun eta Arkaitz Unt-



ARGAZKIA: ZALDUA

Baztango txapelketan parte hartu duten pilotari batzuk ageri dira argazkian.

xalok 18 eta 6 irabazi zieten Asier Goñi eta Unai Astizi.

Haur mailan, Ibai Juanenak eta Joseba

Arizmendik 18 eta 5 irabazi zieten Iban Inda eta Joseba Apeztegiari.

Kadete mailan, Beñat Oronoz eta Imanol

Juanenak 18 eta 5 irabazi zieten Gorka Altzuarte eta Unai Apeztegiari.

Gazte mailan, az-

kenik, Jon Arretxea eta Imanol Goienetxek 22 eta 13 irabazi zieten Manu Irigoien eta Eneko Rabinari.

Txarutak ongi akitu zuen 2006 urtea

A.A.

Txaruta pilota elkarteak modu bikainean akitu zuen 2006. urtea. Nafarroako txapelketan, Patxi Barbarena iruritarra eta Garikoitz Juanenea saldistarra gazte mailan eta Xabi Arraztoa iruritarra, banakakoan helduen 1. Mailan, txapelkun izan ziren.

Auñamendiko txapelketan, Xabier Madariaga urroztarra kadete mailan eta Arkaitz Untxalo ittundarra kimu mailan txapelkun suertatu ziren. Dario Trantxe elizondarra kimu mailan eta Iñaki Azpiroz iruritarra ume mailan, azpitxapelkun izan ziren.

Gartzarongo txapelketan, gazte mailan Garikoitz Juanenea saldistarra eta Gaizka Otxandorena almandoztarra eta kimu mailan Ugaitz Eli-

zalde ittundarra eta Joseba Apeztegia iruritarra azpitxapelkun izan ziren (Ondoko argazkian ageri dira).

Lizarrako banakako txapelketan, helduen mailan, Xabier Elizalde eta kimu mailan Arkaitz Untxalok, txapel bana ekarri zuten Iturenera eta txikien mailan Iker Espelosin sunbildarra azpitxapelkun izan zen.

Burlatako txapelketan, kimu mailan, Arkaitz Untxalo ittundarra eta Joseba Apeztegia Iruritarra, azpitxapelkunak izan ziren.

Zaldibarko txapelketan, Helduen mailan, iruritako Xabi Arraztoa azpitxapelkun izan zen eta Lizarrako Eguberrietako Torneoan, kimu mailan Iturengo Arkaitz Untxalo, azpitxapelkun suertatu zen.



PILOTA

Zozaia eta Ibargarai Nafarroako txapeldun izan dira pala motzean

Lesakarra eta erratzuarra pala luzeko finalean elkarren kontra aritu ziren

A.A.

Xabier Zozaia lesakarrak eta Xabier Ibargarai erratzuarrak osatutako bikoteak pala motzeko Nafarroako txapelketa irabazi du. Oberena klubaren ize-nean ari den bikoteak 40-23 irabazi zion Labriten jokaturako finalean Agoitzeko Larrea eta Erbururi. Garaipen honi esker, Zozaia eta Ibargarai Espainiako klub arteko txapelketan

parte hartuko dute orain.

Baina ez da azken hilabeteetan bi pilotari handi hauek eskuratu duten garaipen bakarra. Ibargarai erratzuarrak, palista profesionalekin batera jokaturako Nazioarteko Pala Motzeko irekia irabazi zuen. Fustoa argentinarrarekin bikote eginez, bi profesional handiri, Urkia eta Galani irabazi zien.

Zozaia lesakarra ere pala motzean aritu da,

Gasteiz, Sestao eta Frantziako torneoan. Hiru txapelketa hauetan finalerdietan kanporatu dute.

PALA LUZEAN ERE BIAK FINALISTA

Baina Xabier Zozaiak pala luzeko Nafarroako txapelketa ere irabazi du. Txikirekin bikote egin du eta iaz bezala, aurtengo txapeldun serratatu dira. Noaingo pilotalekuan jokaturako fi-



ARGAZKIA: TELLETXEA

Xabier Ibargarai erratzuarra eta Xabier Zozaia lesakarra, Nafarroako txapeldun pala motzean.

nal estuan 45-44 irabazi zieten Zabalza eta Xabier Ibargarairi. Erratzuarrak azken sakean

falta egin zuen eta hortxe ihes egin zion txapelak, lesakarraren mesederako.

MENDI DUATLOIA

Munduko Kopako sailkapen buruan segitzen du Mitxel Aginagak

Hirugarren izan zen Londresko Green Cup proban

A.A.

Mitxel Aginaga kirolari narbartearrak merituko hirugarren postua eskuratu zuen urtarrilaren 6an Londresko Bordon Green Cup proban. Ibilbidea hagitz zail zegoen, euria eta lohiarekin, eta horrek gogortu zuen proba.

Mitxel, hasieratik lasterketa buruan izan zen laukotean sartu zen. Baina lasterketaren hirugarren sektorean, lasterka egin beharreko biga-

rrean, ihes egin zion garaipenaren borroka. Aginagak aipaturakoaren arabera, oinetakoen aukeraketa okerra egin zuen, ibilbidea lehenbiziko sektorean baino egoera kaxkarragoan baitzegoen eta "bi pausotikan irristatzen nintzen". Narbartearra hirugarren izan zen, Erresuma Batuko Christopher Birch eta Colin Dixonen gibeletik.

Erresuma Batuan izandako esperientzia-

rekin kontent itzuli da Aginaga eta Munduko Kopako sailkapenerako puntuak pilatzen segitzen du. Narbartearra da oraingoz, Munduko Kopako horretako sailkapen buruan eta podiumera igotzen segitzen duenez, konfidantza dauka udaberri honetako bilasterketa nagusiendako: Espainiako Puertollan egiten den Europako txapelketa eta Argentinan egiten den Munduko txapelketa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Europa eta Munduko txapelketa prestatzen arida orain Mitxel Aginaga.

AGENDA egunez egun

IÑAUTERIAK

LEITZA

Urtarrilaren 27tik 30era iñauteriak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

AURTIZ-ITUREN-ZUBIETA

Urtarrilaren 25etik 31ra iñauteriak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

SUNBILLA

Urtarrilaren 26tik 28ra iñauteriak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

ERAKUSKETAK

ARIZKUN

Abenduaren 23tik urtarrilaren 29 artio Gorrienea Museo Etxean «Munduko jaiotzak» erakusketa.

ZINEMA

LEITZA

Urtarrilaren 19 eta 21ean, «Nömadak TX» filmea ikusgai zinemaz. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

IKASTAROAK

ETXALAR

Urtarrilaren 22tik 26ra, Power Point, aurkezpenak egiteko programaren ikastaroa Kultur Etxean, 16:00etatik 18:00etara. Izen-ematea: 26 euro. Lau pertsonendako lekua bertzerik ez da. Izen ematea 948 635386 telefonoan edo kulturetxea@etxalar.org helbidean.

ZUGARRAMURDI

Urtarrilaren 16tik aitzinera, Ekialdeko dantzen ikastaroa emanen da Akelarrean (dantza egipziarra, sabelaren dantza...). Astean bi egunez, 18:00etatik 19:30era. Izena eman daiteke oraindik 627 457336 telefonoan.

ttiipi-ttapa • agenda praktikoa

TELEBISTAKO TXOKOA



IÑAUTERIETAN MURGILTZEAR

Joaldun, mozorro eta karroza besta Ttiipi-Ttapa Telebistan

Iñauteriak ofizialki otsail erdi aldera izanen badira ere, jakina da gure eskualde honetan, behin Errege eguna pasatuta leku aunitzertara ailegatzen dela mozorro, karroza, joaldun eta atsoguratuak besta. Erraterako, Orabidean eta Eratsunen dagoeneko ospatuak dituzte. Orain, ttiipi-ttaparen eremuan eta eskualdetik kanpo ezagunen egin diren iñauterien txanda ailegatuko da: Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunen pulunpa soinuak, Sunbillako karroza ikusgarriak eta Leitzako atsoguratuaren joan-etorriak ilbeltzaren azken aste hondarrean izanen dira eta ttiipi-ttapa telebistak, urtero bezala,

iñaute egun hauen berri emanen dizue. Hurrengo igandean, urtarrilaren 28an, urtetik urtera indartsuagoa eta irudimentsuagoa suertatzen den Sunbillako karrozen desfilearen irudiak grabatuko ditugu. Dena den, igandea azken eguna dute Sunbillan eta aitzinetik egiten dutenaren berri ere izanen duzue telebistan. Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldun eta mozorroek, hurrengo astelehen eta asteartean egingen dituzte joan-etorri jendetsuenak. Hainbat bisitariren artean xehetasun guzieren berri izatea ezinezkoa denez, aukera ederra izanen duzue Ttiipi-Ttapa Telebista paratuta.

DISKAK



Elizatik plazara baigorriarren gisara

Jean Louis LAKA

Elizako kantuak, familiako kantuak, herritar-tasunari lotu kantuak eta Baxenafarroa, Lapurdi eta Xiberoko kantuak bildu ditu Jean Louis Harinordoki «Laka»k bere diska honetan. «Ene hau denboran oraino jende euskalduna astero kantuz ari zen. Marcelin Indart «Goenetxe», Jan Battit Bidart «Kuxkurrio» eta, berrikiago, Erramun Martikorena baigorriarren izenak berexi ditu Lakak, haieri ikasitako kantuak hautatu baititu, baita Ibai Gorri gizon taldean abestutako zonbait. Batzuk bakarrik eman ditu eta gainerakoetan laguntzaile onak dauzka: Magali Zubillaga alduarra, Eñaut Etzemandi bitirindarra, Jacques Ballu piano joilea, Baigorriarretan Maitena Monaco eta Lakaren alaba Maider kantuz, Maddalen Dupuy kordeonlaria, Betti Bidart txistularia eta Mikel Erramuzpe gitarra joilea.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Urtarrilaren 1etik 5era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 39,00 € (-1,00)

Zerri gizena
0,947 € kilo. (-0,018)

Zerramak:
0,480 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,98 (+0,03)
1.koa 3,73 (+0,03)
2.koa 3,53 (+0,03)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,10 (+0,03)
1.koa 3,85 (+0,03)
2.koa 3,62 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 210,00 (=)
idixkoak 258,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 170,00 (=)
idixkoak 195,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,94/3,05
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,60/7,30
8-10 kilokoak: 5,20 /5,90

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Merkealdiek kalitate berdina prezio hobean eskaini behar dute

Soberako kontsumorik ez egitea aholkatu du Irache elkarteak

Errege eguna pasatu bezain abudo hasi dira gehienez bi hilabete iraunen duten merkealdiak. Irache kontsumitzaile elkarteak neurritz kontsumitzea aholkatu du, denboraldiko produktuen prezio jautsierak aurrezteko aukera ematen baitu, baina aldi berean, sobera kontsumitzera eramaten ahal gaitu.

AHOLKUAK

- Erosketaren beharra aztertu eta egitan behar duzunaren zerrenda zehatza egin.
- Ordurik lasaienak aprobetxatu eta modaz pasatzen ez diren artikuluak erosten saiatu.
- Prezioak konparatu. Denda batean merkealdian dagoen artikulu bat, deskonturik ez duen bertzetara batean baino garestiago izan daiteke.
- Jautsitako prezioa-



Txartel bidez ordaintzeko aukera ematen duten komertzioek merkealdietan ere aukera hori eskaini behar dute, ez badute ongi ikusteko moduan kontrakoa adierazten.

ren ondoan lehengo prezioa ere ageri dela segurtatu.

- Produktuen etiketatua egokia dela konprobatu.

- Merkealdian eskaintzen diren produktuek lehendik gut-

tienez hilabete batez salgai egon behar izan dute.

- Neurriak, koloreak, kremalllerak... aztertu. Merkealdiek kalitate berdina hobean eskaini behar dute.

- Fakturak eurotan eskatu. Faktura edo erosketaren egiaztagiria gorde, erreklamatzeko orduan balio duten agiri bakarrak baitira.

- Artikulu guzietan guttienez bi urteko garrantzia izan behar dute legez.

- Adijende-ilareei. Jende pilaketak eta ilarak izateak ez du beti produktu merkeagoak direla erran nahi.

- Adi neurriei. Denda batean produktu bereko neurri aunitz dandenean kontu handia izan behar da. Horrek deus ez dutela saldu edo produktua bereziki merkealdietarako ekarri dutela erran nahi du.

- Zure eskubideak zapaldu direla uste baduzu, erreklamazio-orrria eskatu eta kontsumitzaile elkarte batera joan. Hemendik zure denuntzia kudeatuko dute.

MENDI ATERALDIAK

LESAKA

Urtarrilaren 21ean San Antongo erromeriara ateraldia antolatu du Beti Gazte elkarteak. 8:00etan Plaza Zaharrean.

ARGAZKI EMANALDIAK

ELIZONDO

Urtarrilaren 20an Joxe Erregerenaren argazki emanaldia Gaztetxean 19:00etan.

Urtarrilaren 27an Patxi Lasarteren argazki emanaldia Gaztetxean 19:00etan.

LEHIAKETAK

BAZTAN

Urtarrilaren 30ean akituko da bertso-paper, ipuin, gutun eta esaldi lehiaketara lanak aurkezteko epea. Xehetasunak 436. aleko 16. orrian.

TAILERRAK

BERA

Otsailean Marrazki artistiko tailerra emanen du Matilde Brugierek, Gure Txokoa elkarteak antolatua. Izen emateko 620 719400 telefonora deitu.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Urtarrilaren 20an, Anje Duhalderen kontzertua Lur diskotekan, 0:30ean. Sarrera: 10 euro aurretik, 12 euro takillan.

Urtarrilaren 27an, Norton Klub taldearen kontzertua Lur diskotekan 0:30ean.

DANTZALDIAK

LESAKA

Urtarrilaren 21ean, San Anton eguna ospatzeko dantzaldia Plaza Zaharrean, 18:30etik aitzinera.

LIBURUAK



Portukoplak

Kirmen URIBE

ELKAR, 2006

Kirmen Uribek itsas kanten eta poemen antologia pertsonal bat egin du, ahozko tradizio-ko altxorak jaso eta euskal idazleen idatziekin elkarriketan jarri. Alde batetik ahozko kantuak eta beste batetik idatzizko poemak txirikordatu egin ditu; kantu zaharrek hasi eta XXI. mendeko poemekin bukatu, tartean bertsoak, bertso-jarriak, kantak, poema erri-matuak eta askeak tartekatuz. Literatura mota honek iraganarekin izan duen lotura haut-

si nahian, ikuspegi berria eskaini du Portukoplak izeneko liburu honetan idazle ondarrutarrak: «*Paperean jarri ditut argitaratutako eta argitaratu gabeko kantuak, baina ez hori bakarrik. Kantuen artean hari bat jarri dut eta hor zintziliku ditut nire gogoetak, sentimenduak, oroitzapenak, ipuinak, kostaldeko jendearen perfilak...*».

Horrela azaltzen du Uribek itasasoari buruz eman nahi duen ikuspegi pertsonal hori.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

- **ELIZONDO.**
 - Apartamentu eta pisuak salgai.
 - VPO pisuak salgai.
 - Terreno rustikoak eta urbanoak salgai.
 - **ARANTZA.**
 - Borda eta etxeak salgai.
 - Baserria bere lurrekin errentan.
 - **BERA.** - Pisia salgai.
 - **IGANTZI.**
 - Terrenoak salgai.
 - **LESACA.**
 - Pisuak eta terrenoak salgai.
 - **ETXALAR.**
 - Harrizko etxeak salgai.
 - **DONEZTEBE.**
 - Eraikuntza berriko eta 2. eskuko pisuak salgai.
 - 10 minutura: baserria, borda eta lurrekin salgai.
 - Etxeak eta bordak salgai.
 - **LEITZA.**
 - Pisia salgai. Aukera ona!!
 - **SUNBILLA.**
 - Unifamiliarrak eta terrenoa salgai.
 - **BAZTAN.**
 - Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta terrenoak salgai.
 - **PROMOZIO BERRIAK:**
 - **IGANTZI.** AZKEN pisu eta apartamentua trasteroarekin eta aparkalekuarekin salgai.
 - **ELIZONDO.** VPOko pisuak trastero eta aparkalekuarekin salgai.
- INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

IRUÑA. Pisia salgai erdi aldean. Igogailua, berokuntza, 90 m². % 669 732078.

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

DONEZTEBE, MALERREKA edo **BORTZIRIAK.** 50 m² inguruko pisua edo etxe ttipi bat hartuko nuke errentan. % 679873492 (Karlos).
BAZTAN. Elizondoko bikote batekpisia errentan hartuko luke. % 639 526865.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LEITZA. Gaztañaga taberna traspasatzen da. Sukalde berritua eta MINP proiektua egina. Ordaintzeko erraztasun handiak. % 699



SUNBILLA
- Promozioa: 83,72 m²
188.450 €
ELIZONDO
- Santiago karrikak
87,60 m², trasteroa
230.250 €
- Brudilo biarte karrikak
82 m², 131.300 €
DONEZTEBE
- Pisu berria, 100 m².

948 450188
638 845560

361194.

ELIZONDO. Aita Donostia karrikak lokala salgai. 84 m², kalefakzioa, komuna. % 661 765381.

LEITZA. Garajea salgai eta beste bat errentan emateko. % 659 751411.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

BERA. Garajea errentan emateko, Correos ondoan. Aproposa motoak eta bizi-kletak uzteko. % 948 630881.

ELIZONDO. 45 m²ko lokala errentan emateko. Denda eta bertze negozioa jartzeko modua. % 626 021643.

BERA. Garaje-plaza errentan ematen da. Euskalduna jatetxe parean, Dorrea bloketan. % 948 585 059.

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

LEITZA. 4.000 m²ko lur erakigarria salgai, Basakabi ondoan. % 699 361194.

ZERBITZUAK

205 Zurginak



ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisarik gabe

Juan Ripoll Errendatzailea
Tel: 948 634 948 - 647 810 144
Gernika - ARANTZA



Baztango
promoción inmobiliaria

SALMENTA:
BERA: 3 etxebizitza berri herrigunean. Igogailua.
BERA: 2.155 m²ko lur eraikigarria.
BERA: 3.188 m²ko lur eremua.
ARANTZA: (Beratik 10 km.ra) 76 m²ko pisua, 3 logela, egongela, sukalde, bainua. Trastelekua. Baratztea. Bista onak.
DONEZTEBE: Bi familiako etxebizitzan, 72 m²ko pisua eta bajera. Moldatu behar da.


ESKARI HANDIA IZATEAGATIK, ETXEAK, PISUAK, BASERRIAK, BORDAK ETA LUR EREMUAK BEHAR DITUGU.

URTE BERRI ON!

Kattonberri karrika, 4
31780 Bera, Navarra
Tel/Fax 948 630552
info@baztango.com
www.baztango.com

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak



BORDA
Pladur lanak
ERREFORMAK
DEKORAZIOA
SABAI MODULARRAK
ISOLAMENDUAK
sua - zarata hezetasuna

Tel-Faxa:
948 637 546
Mug:
609 477 277

LANA

301 Eskariak

40 urteko txofer euskaldunak (C+E, D eta ADR karretak dituen) eskaintzen da lan egiteko. % 679 873492 (Karlos).

22 urteko mutil euskaldun batek lan eginen luke egunean 4 edo 6 orduz, edo goizeko txandan. LH mekanizatua ikasia. Kotxearekin. % 948 585059.

LANA

302 Eskaintzak

DONEZTEBE. Ostatu batean neska behar da egunez lan egiteko. % 948 450383.

BERA. Aluminio lantegi batean lan egiteko aprendiz eta ofiziala behar dira. % 607 420420.

BERA. Ansonea jatetxean pertsona bat behar da ostatuan eta komedorean zerbitzatzeko. % 948 631155.

BARAÑAIN. Ilea-paintzailea behar da. Esperientziarekin, euskalduna eta langilea. Martxotik aurrera lanean has-teko. % 948 185889.

LESACA. Atxaspi ostatuan bi zerbitzari behar ditugu asteburuetan lanean aritzeko. % 948 637536.

BERA. Jatetxe batean sukalde arduraduna eta zerbitzaria behar ditugu. Pertsona arduratsua eta esperientzia dutenak izan daitezela. Baldintza onak. % 654 385363.

MENDAUR MOTOR
 & 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Mitsubishi D1D 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Grand Vitara 3 ateko gasolina, Opel Zafira, Volkswagen Polo, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Nissan Almera urte batekoa eta Galloper 5 atekoa eta Land Rover. SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

TALLERES SANTESTEBAN
 & 948 450282 • DONEZTEBE

KOTXE IA BERRIEN ESKAINTZA ZABALA (6-12 HILABETEKOKAK)

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, MEGANE GRAND TOUR, SCENIC, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE.

BIGARREN ESKUKO KOTXEAK

OPEL ASTRA 2.0, MEGANE COUPE 1.9TDI, PEUGEOT 306 1.9 TD, SUZUKI VITARA 1.6., CITROEN XSARA 2.0 D, FORD MONDEO 1.9 D.



GANIX TALLERRA
 ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea
 BERA FIAT zerbitzua
 Iruñeko, 9 - Tel: 948 630 667

MOTORRA
501 Salerosketak

Citroen Xsara 2.0 HDI autoa salgai. 2000. urtekoa. Extrak baditu. % 610 987823.

Citroen Xsara 1.9 Turbo Diesel

sela salgai, 1998. urtekoa. % 667 717684.

Citroen C15 autoa salgai, NA-AS matrikuladuna. Egoera onean. 2.000 euro. % 948 451569.

Quad Yamaha Banshee salgai, 350 cc, 2002koa, extra ugariarekin. Oso gutti erabilia, egoera hagitzen onean. % 687 052867 (19:30etik aitzinera).

Traktorea salgai, Carraro markakoa, 60 zaldikoa, palararekin. Prezioa: 3.000 euro. % 678 959534.

Peugeot 206 autoa salgai. NA-AY, 93.000 km. Diesela, 3 atekoa. % 618 889953.

DENETARIK
701 Galdu-aurkituak

BERA. Urteazharrean bizakur galdu dira, beagle bat eta gaztain koloreko arratoi zakurra. % 646 485817.

DONEZTEBE. Bizikleta bat aurkitu dugu. % 630 930850.

DENETARIK
702 Salerosketak

Lurreko sua salgai, haize beroarentzat bi tartekirekin, haritzeko tximini-burua 185x90, kajoia 70x50 eta tximini oina 170x110. Prezio-



az solastuko dugu. % 948 635025.

Pianoa salgai, Yamaha markakoa. Egoera onean, kolore beltza. Prezioaz solastuko dugu. % 948 630481 (Santos).

Bertako haritz plantak salgai. % 678 959534.

Berogailua salgai, egur birutarekin dabilena. Tximiniari ez du behar. % 948 637965.


MALERREKAKO ZERBITZU OROKORREKO MANKOMUNITATEA
KONTUHARTZAILEA ORDEZKATZEKO DEIALDIA
BETE BEHARREKOAK:

- Ekonomia Zientzietan, Enpresa Zientzietan edota Zuzenbidean diplomadun izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Gidatzeko baimena eta kotxea izatea.

ESKAINTZEN DA:

- Amatasun baja garaiko lan kontratua, jornada osoan.
- Administrazio B mailari dagokion soldata eta lanpostuaren osagarriak.

ESKAERAK

- Eskaeak urtarrilaren 31ko 14.00ak baino lehen aurkeztu behar dira, beheko helbidean.
- Aurkeztu behar den dokumentazioa eta gainerako xehetasun guztiak deialdian irakur daitezke. Deialdia eskuratzeko deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko e-postara.

Donezteben, 2007ko urtarrilaren 11n

Mankomunitateko lehendakaria, Mikel Petrirena Azpiazu.

Malerreka Zerbitzu Orokorreko Mankomunitatea

Telefona: 948451746. E-posta: malerreka@animsa.es

Merkatarien karrira, 17, behea, 31740 DONEZTEBE.



Fatxadak · Barnealdeak
 Dekorazioa (estuko, beladurak,...)
 Pladurra · Lakatua eta barnizatua kabinan

Kamietea Etxea · Landibar Auzoa · 31711 URDAZUBI
 Tfnoa: 659 862 417



Grupo Tanatorio Taldea

irache

Maldaerrika S.L.
 Funeraria Baztan

24 orduko zerbitzua beilatokian eta etxean

trasladoak iruñea, donostia eta irungo ospitaletatik edozein herrietara

loreak, hilarriak, eskelak, errausketak eta zerbitzu osagarriak

Bera 948 63 74 04
 SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
 SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
 FUNERARIA BAZTAN
 TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
 LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
 LESAKAKO TANATORIOA

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



EKAITZ MUTU-BERRIA GASTEI leizarrak 3 urte bete ditu urtarriaren 9an. Zorionak eta muxu bat. Aita, ama, amona Karmen eta izeba Balkarxo.



Berako **ALAITZ AGUILAR LAZKANATEGIK** 12 urte egin ditu urtarriaren 7an. Zorionak aita, ama, Ainhoa eta Ganixen partetik.



JUNE BENGOMETXEA ZUBIETA urtarriaren 16an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat.



RAKEL MIGELTORENA urtarriaren 16an urteak bete ditu. Zarena, zarelako: sinpatika, alaia, eskuzabala eta hain izeba ona. Lesakako hirukotea.



Iruritako **ARITZ BIKONDO ARRETXEARI**, zorionak bihurri, 2 urte urtarriaren 7an bete dituzulako. Aita, ama eta Iruritako familli guzien partetik, ongi pasa.



Berako **IKER OSUA CABIDAK** 3 urte beteko ditu urtarriaren 20an. Mila muxu aita, ama eta bereziki Aneren partetik. Zorionak txapelduna!



Berako **ANE OSUA CABIDAK** 7 urte beteko ditu otsailaren 3an. Mila muxu aita, ama eta bereziki Ikerren partetik. Zorionak printzesa!



IKER eta **ANE OSUA CABIDA** beratarrek urtarriaren eta otsailaren 3an 3 eta 7 urte beteko dituzte. Zorionak «bikote» eta muxu bana familiaren partetik.



MIREN VERA RODRIGUEZ Almandozkoak urtarriaren 22an 5 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat aita, ama eta Jon anaia-aren partetik.



OIER ZAPIAIN MIGELENA beratarrek 8 urte bete ditu urtarriaren 14ean. Zorionak eta muxu bat ama, aita eta Naroa-ren partetik.



Lesakako **AINARA** ttipittintxoenari mila muxu eta zorion bere bigarren urtebetetze egunean, urtarriaren 15ean, Katti eta Ibonen partetik.



MARIO OSUA beratarrek urtarriaren 5ean urteak bete zituen. Muxu haundi bat familiaren eta bereziki Ane, Asier, Iker eta Andoni-aren partetik.



IZARO LARRALDE IBARRA beratarrek 5 urte beteko ditu urtarriaren 26an. Zorionak eta muxu haundi bat Ugaitz eta lehengusu guzien partetik.




IORITZ ARBURUA LEONIS beratar honek urtarriaren 24ean beteko ditu 7 urte. Ongi pasa eguna eta muxu aunitz zure atautxi eta amatxiren par-



IORITZ ARBURUA LEONIS beratar honek urtarriaren 24ean beteko ditu 7 urte. Ongi pasa eguna eta muxu aunitz ataxo eta amatxoren par-



IZARO IPARRAGIRRE IRIGOIEN lesakarrak urtarriaren 21ean 4 urte beteko ditu. Muxu haundi bat etxekoan partetik eta ongi pasa.



MANUEL MINDEGIA eta **ROSALINA ELIZALDE** aurtiztarrek otsailaren 27an Urrezko Ezteiak ospatuko dituzte. Muxu haundi bat Ekiñe, Ainara eta Arkaitzen partetik.

1945az geroztik

MAGNA

MAGNESITAS NAVARRAS, S.A.

E-mail: baztan@maglur.org

babeslea:

BAZTANGO MAGNA BKT

Lasao

• egurrezko altzaria

Ez zenuen, bada, zerbait
desberdina nahi? Esklusiboa?

Egurrezko altzariak, gaur egungo diseinuarekin



Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA
Tfnoa: 943 15 11 82 · Faxe: 943 15 10 98
e-posta: informacion@lasao.com

www.lasao.com



urtarrilak**20**

Anje Duhalde

00:30 10€ aurretik 12€ takillan

urtarrilak**27**

NORTON KLUB

00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

otsailak**3**

JOXEINA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

otsailak**10**

JOSELU ANAYAK

00:30 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

otsailak**17**

MESTIZO SKA JAIA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:00ak arte

otsailak**24**

HAMLET

00:30 12€ aurretik 15€ takillan